

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2322

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-arloko ekintzailatza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko 2025eko ekitaldirako laguntzak arautu eta haien banaketarako deialdia egiten duena.

Euskal turismoa goraldian eta hazkundean bizi da azken urteotan, baliabide gastronomiko, kultural eta naturalen aniztasunean eta aberastasunean oinarrituta. Halaber, turismo iraunkorra sustatu eta garatu du. Gainera, sektore profesionalizatua du, eta gizarte-balio berriak eta eraldaketa teknologikoaren esparrua integratzen ari da eguneroko jardunean.

Ikuspegi ekonomikoari dagokionez, Euskadiko turismo-sektoreak % 4,75eko hazkundera izan du 2024ko lehen erdian, 2023koarekin alderatuta. Gaur egun, EAEko BPGren % 6,3 da, eta zuzeneko 111.000 lanpostu inguru sortu ditu (2024ko 2. hiruhilekoa), Euskadiko guztizko enpleguaren % 11. Horregatik guztiagatik, esan daiteke turismo-industria euskal ekonomiarentzat motor ekonomiko garrantzitsua dela.

Turismo eta Merkataritzaren Euskal Estrategiak (2030) eta Turismo eta Merkataritzako Ekintza Planek (2023-2025) datu positibo horiek guztiak jasotzen dituzte, eta Euskadik urtarokotasuna gainditzeko eta turismo-fluxuak mugitzeko duen joera berresten dute.

2025ean, Sailaren lan-planteamendua izango da sektoreari babesa ematen jarraitzea eta Euskadin turismo iraunkor, lehiakor eta inklusibo baten alde egiten segitzea, Estrategiarekin bat etorrita.

Ilido horretan, oso garrantzitsua izango da Eusko Jaurlaritza, dirulaguntzen bidez, lurraldeko jarduera ekonomikoari eusteko egiten ari den laguntza-ahalegina.

Testuinguru horretatik, turismo-arloko ekintzailatza eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programak balioko du hobeto osatzeko zenbait administrazio martxan jarritako neurri ekonomikoen multzoa, zehazki, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak sektoreari eusten eta jarraipena ematen laguntzekoak; horregatik, horiekin guztiekin bateragarria da. Programa honen helburua da ekonomia suspertzea eta jarduera turistikoa bultzatzea. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak legegintzaldi honetarako garatutako bi faseko estrategiaren barruan dago, eta 2024-2028 aldirako Gobernu Programaren barruan dago, zehazki:

- 2. ardatzean: Hazkunde- eta ongizate-eredua,
- horren barruan, 18. jarduketa-arloan (Turismo jasangarria eta bikaintasunekoa);
- eta 108. konpromisoan: «Euskadi, helmuga konprometitua eta iraunkorra».

Laguntza-programa hau 2024ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez onartu zen, eta 2025eko otsailaren 5ean aldatu zen Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan definitutako hurrengo helburua lortzen laguntzeko ezarri da; hau da, turismoak gure ekonomian duen eragin positiboa handitzeko. Horretarako, turismo jasangarriaren eta kalitatezkoaren aldeko apustua egin da, bai eta ingurumenarekiko arduratsua eta ekonomikoki eta sozialki iraunkorra ere, bisitarien eta tokiko pertsonen artean «aberratasun soziala» ahalbidetuko duena, eta alde guztiei mesede egingo duena.

Horrela, tokiko komunitatearentzat balioa sortuko duten turismo-negozio berriak sortzea sustatu nahi da, bai eta negozio-ereduetan berrikuntza, teknologia eta sormen-prozesuak bultzatzea ere, enpresen lehiakortasunari eusteko eta haien eskaintza hobetzeko eta optimizatzeko.

Azkenik, gizarte- eta ingurumen-erantzukizunaren alde apustu egiten duten turismo-enpresei eman nahi zaie lehentasuna, bermatzeko turismoaren hazkundea bateragarria izango dela bertako biztanleen bizitza-kalitatea gordetzearekin eta aberastasuna sortzen jarraitzeko gaitasunarekin.

Bestalde, eta Saileko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planaren helburu estrategikoekin bat etorriz, laguntza-programa horren helburua da emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzea turismo-jardueran, hain zuzen genero-arrakala hauteman den eremuetan, arrakala hori desagerrarazteko.

Programaren helburu espezifikoak kontuan harturik, turismo-arloko ekintzailatza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko programaren helburu zehatzak hurrengo hauek dira:

1.– Negozio lehiakorren eta enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen dutenen kopurua handitzea.

2.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eta bestelako soluzio teknologikoak erabiltzen dituzten enpresen kopurua handitzea, enpresek bezeroekin duten elkarreragina eta turismo-negozioen eraginkortasuna hobetzeko.

3.– Eskaintzen dituzten zerbitzuen kalitatea hobetzen duten enpresen kopurua handitzea.

4.– Turismo segurua, ingurumenaren aldetik jasangarria eta irisgarria eskaintzen duten enpresen kopurua areagotzea.

Prozeduraren ikuspuntutik eta administrazio-izapideak errazteko, agindu honetan erabaki da espedienteen izapidetze elektronikoa egingo dela. Programa honen aurretik antolatu diren enpresa onuradunekin izandako kudeaketa-esperientzia aztertuta, ikusi da prozedura hori aurrerapen bat dela lortu nahi den enpresen eta erakundeen lehiakortasunaren hobekuntzaren ildotik, eta horrek ez duela eragiten inolako diskriminazio edo kalterik.

Laguntza- programa honek behar besteko aurrekontu-kreditua du Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan. Halaber, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2024ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez onartua eta 2025.eko otsailaren 5ean aldatua eta sailaren webguneko «planen eta proiektuen» atalean argitaratu zen (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/turismo-merkataritza-kontsumo-saila/>) Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Horrenbestez, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak dituen eskumenak baliatuta (honako arau hauek eman dizkiote eskumenak: Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 5.2 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Decretuaren 18.1.a) artikulua; Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. Artikulua), honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Turismo-arloko ekintzailatza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko programaren 2025eko ekitaldiko deialdiaren oinarri arautzaileak onartzea, eranskine-tan jasotako baldintzen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek euskal herriko agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Oinarrietan aurreikusi ez den guztian, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean jasotako araudian aurreikusitako dirulaguntzen araubide juridikoa aplikatuko zaio laguntza-programa honi. Alde batera utzi gabe Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen erregelamenduan xedatutakoa, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta betebeharrak ezartzen dituen; eta prozeduraren arloan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, berraztertzeko errekurtsioa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 21a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

I. ERANSKINA

OINARRIAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.– Xedea.

Turismo-negozio berriak sortzeko eta sektorea modernizatzeko eta berritzeko laguntza-programaren deialdia egitea da Agindu honen xedea.

Helburu horrekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoan toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozio berriak sortzen lagunduko da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; hala-ber, haien kalitatea hobetu nahi da, eta turismo seguru, jasangarriko eta irisgarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako lerro hauetan sartzen badira:

- Ekintzailletza, negozio turistiko berriak sortzeko.
- Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.

2. oinarria.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi hau finantzatzeko erabiliko diren baliabide ekonomikoak EAEren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako bideratutako aurrekontu kredituetatik datoz, eta, guztira, 1.285.000 euro dira. Honela banatzen dira bi lerroetan:

- Ekintzailletza, negozio turistiko berriak sortzeko: 500.000 euro.
- Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea: 785.000 euro.

2.– Bi lerroetako bakoitzari dagozkion laguntzak eman ondoren, lerro horietako bat finantzatzeko kreditua agortu ez bada, soberako zenbatekoa bestearen kreditua handitzeko erabili ahal izango da.

3. oinarria.– Definizioak.

Agindu honen ondorioetarako, definizio hauek finkatzen dira:

1.– Enpresa. Bere forma juridikoa edozein izanik ere, jarduera ekonomiko bat garatzen duen pertsona batek edo gehiagok sortutako edo eratutako erakundea; hau da, merkatu jakin batean ondasunak jartzen dituen edo zerbitzuak eskaintzen dituen.

2.– Ostatu-enpresa turistikoak. Ustiapen-xedearen arabera, honela sailkatzen direnak: ostatu-establezimenduak (hotelak, apartamentu turistikoak, kanpinak, turismo-aterpetxeak, nekazaritza-turismoak eta landetxeak); erabilera turistikoko etxebizitzak; eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak.

3.– Sukaldaritzaren arloko enpresak. Jatetxeak, tabernak, kafetegiak eta tankera horretako establezimendu finkoak, publikoari oro har irekiak, establezimenduan bertan prestatutako otorduak eta edariak eskaintzen dituztenak modu ohikoan eta profesionalean, dela tokian bertan kontsumitzeko, dela handik kanpora janaria eramateko eta etxean banatzeko zerbitzuak eskainiz.

4.– Kongresuen antolatzaile profesionalak (KAP). Biltzarrak, azokak, konbentzioak eta antzeko ekitaldiak egiteko aholkularitza-, plangintza-, antolaketa-, zuzendaritza- eta kontrol-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa edo pertsona espezializatuak, edo dena delako kongresuak profesio-nalki eskatzen duen zernahi beste jardueratan aritzen direnak; izan litezke zuzenean eginak edo azpikontratatuak.

5.– Turismo-garraioko enpresak. Pertsonak lekualdatzeko azpiegitura eta ekipamendu-ondasunak edukita, jarduera nagusi gisa EAE barruan interesekoak diren baliabide edota toki desberdinetan ibilbide gidatuak egitea duten enpresak. Jarduera nagusitzat hartuko da erregular-tasunez eskaintzen dena eta enpresa-jardueran negozio-bolumen handiena sortzen duena.

6.– Turismo aktiboko enpresak. Modu jarraituan eta profesionalean eskaintzen dituzte, pre-zio baten truk, aisia-, kirol- eta abentura-jarduera turistikoak, lehiaz kanpoko testuinguru batean garatuak. Jarduera horiek egiten diren inguruan bertan (airean, lur gainean edo uretan) naturak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzen dira nagusiki, eta jarduera horiek berezko dute halako arrisku bat, edo nolabaiteko trebetasuna eskatzen dute. Kanpoan geratzen dira kirol-federa-zioak, -klubak eta -elkartek, nahiz eta halako jarduerak gauzatu.

7.– Bitartekaritzako turismo-enpresak. Turismoaren arloko aholkularitza-, bitartekaritza- eta antolaketa-zerbitzuak profesionaltasunez eta ohikotasunez ematen dituztenak dira, betiere erre-gelamenduz ezarritako betekizunak betez. Beren baliabide propioak erabil ditzakete jarduera horiek egiteko. Honako hauek hartzen dira bitartekaritzako turismo-enpresatzat: bidaia-agentziak; enpresa elkartuen turismo-eskaintzen merkaturatze komuna egitea helburu duten turismo-enpre-sen elkarteak; erreserben zentralak, bitartekari turistikoak eta operadore turistikoak.

8.– Turismo-gidariak. EAEko interes kultureko ondasun eta gainerako baliabide turistikoen ondare historiko, natural eta gastronomikoari buruz, jarduketa eta zerbitzu turistikoen erabil-tzaileentzat informazio- eta interpretazio-lana egiten duten pertsonak (fisikoak zein juridikoak). Zerbitzu horiek ohikotasunez, profesionaltasunez eta prezio bidez ematen dituzte, Euskal Autono-mia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste edozein hizkuntzatan.

9.– Autokarabanak hartzeko eremu bereziak. Behar bezala zedarritu, hornitu eta egokitutako lur-eremuak, publikoari irekita daudenak eta prezio bidez aldi batean erabil daitezkeenak. Eremu horiek autokarabanentzat eta antzeko ibilgailuentzat bakarrik dira; beraz, ezin izango da instalatu haietan kanpin-dendarik, karabanarik edo aterpe mugikor edo finkorik. Ez da halakotzat hartzen autokarabanak eta karabanak errepide, autobide, hiri-bide eta aparkalekuetan gelditzea edo aparkatzea.

10.– Zerbitzu turistikoak. Turismo-erabiltzaileen eskariari erantzuteko egiten diren jarduerak, zerbitzu hori emateko erabiltzen diren instalazioak eta ondasun higiezinak barne. Ondorio horietar-ako, honako hauek hartzen dira zerbitzu turistikotzat: ostatu-zerbitzuak, bitartekaritzak, informazio turistikoa eta turismoarekin lotutako beste edozein zerbitzu.

11.– Turismo-produktua. Turismoa erabiltzeko eta turismoaz gozatzeko egituratutako baliabide edo zerbitzu nagusi edo osagarri oro, erabiltzaileak jarduera bat edo gehiago egin ahal baditu.

4. oinarria.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan bildutako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte enpresaburu indibidual edo autonomoak eta pertsona juridikoak (aurrerantzean, pertsonak) ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) jarduteko eskatzen diren legezko baldintzak betetzen badituzte. Ondoren zerrendaturiko tipologiaren batean biltzen badira turismo-jarduera horiek:

a) ostatu-enpresa turistikoak,

- b) bitartekaritzako turismo-enpresak,
- c) sukaldaritza-enpresak,
- d) garraio turistikoko enpresak,
- e) turismo aktiboko enpresak,
- f) biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak,
- g) turismo-gidariak,
- h) autokarabanak hartzeko eremu berezien titularrak.

2.– Kanpoan geratzen dira agindu honen 3. oinarrian jasotako definizioekin bat ez datorren jarduera ekonomikoren bat gauzatzen duten pertsonak, bai eta sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak ere; kanpoan geratzen dira, orobat, kapitalean edo gobernu-organoetan administrazio publikoen edo haien mendeko erakundeen partaidetza nagusia duten beste batzuk ere.

3.– Oinarri honetako 1. apartatuko a), b), g) eta h) letretan zerrendatutako tipologietakoren batean inbertsioak egiteko laguntza eskatzen duen pertsonak jardun beharko du titular den eta laguntzaren xede den turismo-establezimenduan edo -negozioan. Establezimendu edo negozio hori, halaber, Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan inskribatuta egon beharko du, I. eta II. eranskinetan laguntza-lerro bakoitzerako ezarritako epeetan. Gainerako tipologiei dagokienez, eskatzailea alta-egoeran egon beharko da laguntza eskatzen duen negozioan edo establezimenduan jarduteagatik dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafean (aurrerantzean, EJZ), I. eta II. eranskinetan laguntza-lerro bakoitzerako ezarritako epeetan.

Baldintza hori egiaztatzeko, kontsulta egingo zaie EAEko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari eta foru-aldundiei.

4.– Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, bertan parte hartzen duten pertsona guztiak, fisiko zein juridiko pribatuak, pertsona onuraduntzat hartuko dira, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari bat izendatu beharko da, zeinak behar adina ahalorde izango baititu onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko. Ezin izango da elkartea desegin, harik eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 43., 44. eta 45. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

5.– Aurreko apartatueta aurreikusitakoez gainera, eta 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa Aginduen arabera, eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte onuradun izateko:

- a) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Laguntza deialdi hau kudeatzen duen organoak automatikoki egiaztatuko du eskatzaileak egunean dauzkala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Zerga-betebeharrak betetzeari dagokion egiaztapen automatikoa berdin egingo da tributuak EAEtik kanpo ordaintzen dituztenekin eta Espainiako Zerga Agentzian edo Nafarroako Ogasunean kudeatzen dituzten enpresekin ere. Hala ere, eskatzaileak egiaztapen horren aurka egin ahal izango du, eta, orduan, eskaturiko egiaztapen horiek aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza eman eta ordainketa egin aurretik egingo dira egiaztapenok.

b) Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izan beharko ditu.

Baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatuko da laguntza eman baino lehen eta ordainketa egin baino lehen.

c) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administrazio-zehapenik, ez egotea horretarako desgaitzen dituen debeku baten pean, sexuagatiko bereizkeriagatik sortutakoak edo emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia ez betetzeagatikoak barne, zehapenak iraun bitartean. Gainera, 50 langiletik gorako enpresa izanez gero, indarrean izan beharko du berdintasun-plan bat, edo izapidetze-fasean azken 6 hila-beteetan kopuru horretara heldu bada eta ezarrita izan beharko ditu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

d) Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretako batean ere ez egotea, dirulaguntzen onuradun izateko.

6.– Onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela justifikatzea, eskabideko inprimakietan txer-tatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta. Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 legearen 13. artikuluko 1.tik 4.era paragrafoetan daude adierazita debeku horiek.

5. oinarria.– Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak lerro hauetakoren batean sarturiko jarduketak finantza-tzera bideratuko dira:

a) Turismo-negozio berriak sortzea, I. eranskinean zehaztutako ezaugarrien arabera.

b) Honako xede hauek bilatzen dituzten turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea, II. eranskinean zehaztutako ezaugarrien arabera:

– Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez.

– Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea.

– Eskaintza turismo segurura, jasangarrira, arduratsura eta irisgarria egokitzea.

2.– Lerroek elkar baztertzen dute.

3.– Laguntzaren xede diren inbertsioak EAEn kokatu beharko dira.

6. oinarria.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Negozio berriak sortzera bideratutako ekintzailatza-proiektuetarako (I. eranskinean daude jasota) gehieneko dirulaguntza diruz lagun daitekeen gastuaren % 40 izango da, 18.000 eurora arte.

2.– Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektuetarako (II. eranskinean daude jasota) gehieneko dirulaguntza diruz lagun daitekeen gastuaren % 30 izango da, 15.000 eurora arte.

7. oinarria.— Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.— Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira II. eta III. eranskinek horri buruz jasotako zehaztapenekin zalantzarik gabe bat datozenak, eta, gainera, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 10era bitartean egiten, fakturatzen eta ordaintzen direnak.

2.— Inbertsio onargarri gisa inbertsio horren balio garbia zenbatuko da beti, halakotzat hartuz balio erantsiaren gaineko zerga kendu ondoren fakturatutako zenbatekoa.

3.— Ibilgetua leasing bidez eskuratuz gero, diruz laguntzeko tarteari dagozkion kuotak lagundu ahalko dira diruz, 2025eko ekitaldiko interesik eta gasturik gabe, faktura ekitaldi horretakoa bada.

4.— Diruz lagun daitezkeen aktibo fisikoak berriak izan beharko dira, eta dirulaguntza jaso duen enpresan sartu beharko dira. Era berean, aktibo ukigarriak eskatu diren negozioan egon beharko dira fisikoki.

Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, dirulaguntza eman den helbururako bideratu beharko dira ondasunak, gutxienez horiek fakturatu eta hurrengo 5 urteetan —erregistro publiko batean inskribatu beharreko ondasunen kasuan— edo hurrengo 2 urteetan gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publiko batean inskribatu beharreko ondasunen kasuan, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 legearen 30.4 artikuluan araututako moduan jokatu beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako destino-betebeharra ez da urratutzat hartuko honako kasu hauetan:

a) Erregistro publiko batean inskribatu ezin diren ondasunen kasuan, dirulaguntza eman den helbururako berdin balio duten beste ondasun batzuekin ordeztzen badira, eta horiek erabiltzen badira ezarritako epealdi osoan, betiere administrazio laguntza-emaileak ordezkapena baimendu badu.

b) Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, administrazio laguntza-emaileak baimena ematen badu ondasunon erabilera aldatzeko, besterentzeko edo kargak ezartzeko. Kasu horretan, eskuratzailleak bere gain hartuko du ondasunak gainerako aldian erabiltzeko betebeharra, eta, betetzen ez badu, dirulaguntza itzultzekoa.

5.— Dirulaguntzen xede diren jarduerak azpikontratatu ahal izango dira, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 arte.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 euroko zenbateko garbia (BEZik gabe) edo handiagoa bada, obra egiteko kostuen kasuan, edo 15.000 euro (BEZik gabe) baino handiagoa, ekipamenduen horniduraren edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren zerbitzuak ematearen kasuan, eskaintza bana eskatu beharko zaie hiru hornitzaileari, gutxienez, zerbitzua kontratatzeko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, zerbitzuaren edo ondasunaren ezaugarri bereziak direla eta, haiek egin, eman edo eskaintzen dituzten nahikoa erakunde ez badago merkatuan, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa egiteko, efizientzia-irizpideak eta irizpide ekonomikoak hartuko dira kontuan —justifikazioan edota dirulaguntzaren eskabidean eskaintza guztiak aurkeztu beharko dira—, eta, proposamen merkeena aukeratu ezean, erabakia justifikatu beharko da memoria batean.

8. oinarria.— Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.— Agindu honen babesean lortutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira diruz lagundutako gastu berberetarako administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako dirulaguntza ororekin, betiere lotura organikorik zein funtzionalik ez badute Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Turismo Sailarekin.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, gainfinantzaketarik gerta ez dadin. Eskatzaileak baldintza hori betetzeko konpromisoa hartuko du aurkeztutako eskabidearen erantzukizunpeko adierazpenean.

Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako laguntza murriztu egingo da, sobera finantzatutakoaren arabera.

2.— Agindu honetan ezarritako laguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2831/2023 (EE) Erregelamenduan ezarritako de minimis arauak errespetatuko dituzte —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da erregelamendu hori, eta 2023ko abenduaren 15eko Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen—.

Europar Batasunak ezarritakoa oinarri hartuta, de minimis erregelamenduen arabera enpresa batek gehienez 300.000 euro jaso ditzake 3 zerga-ekitalditan, laguntza eskatu den ekitaldia erreferentziatzen hartuta.

II. KAPITULUA

PROZEDURA

9. oinarria.— Eskabideak aurkeztea eta izapidetzeko bidea.

1.— Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira izapidetuko, eta, horretarako ebazpena eman ondoren, ez onartzea erabakiko da.

2.— Eskabide bakarra onartuko da eskatzaile bakoitzeko, eta agindu honen 4.1 oinarrian jasotako jarduera motaren bat duen turismo-negozio edo -establezimendu bakar batena izan beharko da. Beraz, pertsona berak eskaera bat baino gehiago aurkezten baditu, elektronikoki aurkeztutako azkena baino ez da kontuan hartuko, eta automatikoki aurretik erregistratutakoa ezestea ekarriko du, bai eta horren prozedura amaitzea ere. Horretarako, ezespenez ebazpena emango da, legez ezarritako baldintzetan.

Eskabide berean turismo-negozio edo -establezimendu bati baino gehiagori dagozkien jarduerak aurkezten badira, haietako batenak hautatzeko eskatuko da, agindu honetako 11. oinarrian bildutako baldintzei jarraikiz.

Era berean, eskaera dagokion lerroan aurkeztu behar da, Ekintzailatza edo Lehiakortasuna den kontuan hartuta. Bestela, ebazpena ezetsia izango da.

3.— Deialdian jasotako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta prozedurazko gainetarako izapide eta kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez baino ezingo dira egin.

Eskabide-eredua, eskabideak betetzeari eta izapidetzeari buruzko argibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak egoitza elektronikoan daude eskuragarri, hemen: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1010213>

4.– Eskabidearekin batera, eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren sinadura, onartuta egon beharko dena EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, eta eskabideari atxiki beharreko gainerako dokumentazioa, ondorengo oinarrian zerrendatzen dena, eta administrazioak eska dezakeena, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Sinadura elektronikoan ageri den data eta ordua hartuko da aurkezpen-egun gisa.

Beste pertsona bat izendatu ahalko du interesdunak ordezkari gisa, agindu honi dagozkion prozedura guztietan bere izenean bitarteko elektronikoen bidez jardun dezan. Horretarako, ordezkariak EAEko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan izena eman beharko du, <https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/webgunean>, edo, bestela, «borondatezko ordezkaritza egilestea, inprimaki normaldua» behar bezala bete (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza-ematea/>) eta eskabideari erantsita. Pertsona juridikoek, gainera, ordezkaritza-ahalordearen kopia erantsi beharko dute, edo legezko beste edozein dokumentu, ahalorde-emailea entitate ordezkaritza-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duena.

Ordezkari fisiko edo juridikoak EAEren administrazio publikoaren egoitza elektronikoan onetsitako identifikazio-bitarteko elektronikoa izan beharko du (<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/web-orrian> dago eskuragarri).

Eskabidea egin ondorengo izapideak, kanal elektronikoaren bidez egingo dira, baita jakinarazpen eta justifikazioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» gunearen bitartez: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Informazioa emateko, abisuak txertatuko dira <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1010213> web-orrian, epeak irekitzeari eta amaitzeari, ebazpenak argitaratzeari eta abarri buruz.

5.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ildo horretatik, pertsona edo entitate eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondoko jardueretan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari jarraikiz.

6.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

10. oinarria.– Eskabidearen eta aurkeztu beharreko bestelako dokumentazioaren edukia.

1.– Eskabidearen inprimaki normalizatuak (ikus V. eranskina) eskatzailearen datu orokorrak bilduko ditu. Bertan, langileen datuak sexuaren arabera bereizita egongo dira, eta proiektuak aztertzeko eta laguntzak kalkulatzeko beharrezkoa den informazioa eta eskabidean aurkeztutako informazioaren egiazkotasunari buruzko eta beste alderdi batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena izango ditu. Hona hemen alderdi horiek:

- Laguntza jaso duen pertsonaren izaerari dagokionez:
 - Betetzen dituela deialdiaren oinarrietan ezarritako eskakizunak.

– Pertsona edo enpresa ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 legearen 13. artikuluan aipatzen diren gainerako egoeretan, eragotzi egiten baitute pertsona edo enpresa onuradun izatea.

• Zehapenei dagokienez:

– Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin ebazpen irmo baten bidez zigortuta ez egotea.

– Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingu-rumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larriagatik zigortuta ez dagoen pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pri-batua, administrazio-bidean ebazpen irmo baten bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak gauzatu eta zehapena bete arte.

– Pertsonaren kontra dirua itzultzeko edo zehatzeko prozedurarik dagoen, edo ez, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirula-guntza batzuen esparruan. Halakorik badago, adierazi zein d(ir)en.

• Bestelako laguntzei dagokienez:

– Proiektu bererako beste erakunde publiko edo pribatuei eskatutako edo haiengandik jaso-tako laguntzak.

– Azken hiru ekitaldietan enpresak jasotako de minimis laguntzak, laguntza eskatu den azken urtea hartuta azken urteko erreferentziazat.

– Aurkeztutako proiekturako erakunde publiko zein pribatuetan eskatu dituen bestelako laguntza-eskaera guztien berri emateko konpromisoa.

– Ez dagoela ezein berreskuratze-aginduren mende, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo izanaren ondorioz.

• Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

– Ez daukala zigorrik, dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izatea debekatzen dionik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatu zuen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 21. bis. 2 artikuluen arabera.

– 50 langiletik gorako enpresei dagokienez, indarrean dauka berdintasun-plan bat, edo izapi-detze-fasean azken 6 hilabeteetan kopuru horretara heldu bada eta ezarri ditu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

• Eskabideari dagokionez, honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

– Betetzen dituela indarrean den araudian laguntzaren onuradun izateko zehaztutako bal-dintzak, horren ziurtagiriak dituela –horiek Administrazioaren esku jarri beharko ditu hark eskatutakoan– eta eskubidea aitortzen zaion aldi guztian zehar aurreko baldintzak betetzen jarraitzea hitzematzen duela.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo infor-mazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen

dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

2.– Dokumentazio osagarria. Eskabide-inprimakiarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira digitalizatuta:

a) Bi lerroetarako oinarritzko dokumentazioa:

– Laguntza-eskabidearen xede diren jarduketei buruzko azalpen-memoria, IV. eranskinean bildutako edukiarekin; horren eredia eskabideari atxikita dago.

– Pertsona juridikoak: enpresaren eratze-eskriturak.

– Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak: eratze-kontratua.

– Diruz lagun daitezkeen gastuen aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak, hornitzaileenak, dirulaguntzaren xede diren elementuak eta/edo lanak argi eta garbi identifikatuta. Euroa ez den beste dibisa bateko zenbatekoek euroan duten balioa adierazi beharko dute eskabidean eta harekin batera doan memorian.

– Hala badagokio, 2025ean formalizatutako leasing-kontratua.

b) Ekintzailetzarako laguntza-eskabidek (I. eranskina), gainera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

– Negozio-plana.

– Lokalaren errentamendu-kontratua, halakorik balego.

– Teknikari eskudunek sinatutako txostena, EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudia betetzen dela ziurtatzen duena. Agiri hori ez da beharrezkoa izango obrarik ez dakarren ekipamendua eskuratzeko eta/edo ezartzeko kasuetan. Kasu horretan, eskabidearekin batera doan memorian adierazi beharko da.

3.– Agiri osagarriak. Era berean, eskabideak deialdiaren 13. oinarrian eta III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera baloratzeko, eskabidearekin batera, hala badagokio, dokumentazio hau aurkeztu beharko da, egiaztatzeko:

• 1. irizpidea (bi laguntza-lerroetakoa):

– «Kotizazio-kontuaren kode batean alta-egoeran dauden langileen txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, eskabidea egin den egunean eguneratua (% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen egiaztagiria).

• 3. irizpidea (ekintzailetza-lerrorako soilik, I. eranskina):

– Negozio-plana enpresak sortzeko eta garatzeko lankidetzan jarduten duten enpresek (enpresa-haztegiak, enpleguak abiarazteko eta ekintzailetzakoak, enpresa-zentroak eta abar) edo enpresa-aholkularitzek garatu edo tutorizatu dutela egiaztatzea.

– Turismo-negozio berriarekin autoenplegua sortzea: Lan-bizitzaren txostena.

– Soldatuko enplegua sortzea: «Kotizazio-kontuaren kode batean alta egoeran dauden langileen txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, eskabidea egin den egunean eguneratua.

- 4. irizpidea (enpresen lehiakortasuna hobetzeko lerrorako soilik, II. eranskina):

– «Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantilla-txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldiari dagokiona.

4.– Laguntza emanez gero, hori ordaintzeko, onuradunak erregistratuta egon beharko du Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan. Eskabidea egitean, eskatzaileak alta eman ahalko du, bai eta lehendik gehitutako informazioa aldatu ere, dagokion moduan, telematikoki, Hirugarrenen Erregistro Telematikoaren bidez, https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml web-orrian jasotako jarraibideen arabera.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aipatutako ordainketarako Hirugarrenen Erregistroko datuen alta edo aldaketa interesdunak berak egin beharko du bitarteko elektronikoen bidez, edo haren ordezkari batek haren izenean, baldin eta ordezkari hori EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>) eskuragarri dagoen ahalordeen erregistro elektronikoa alta-egoeran badago.

Jarduketa hori ez da nahitaezkoa izango eskabidea izapidetzeko, eta, izan ere, eskabidea egin eta gero gauzatu ahalko da. Nolanahi ere, ezin izango da eskatu emandako laguntza ordaintzeko baldin eta baldintza hori benetan betetzen ez bada.

5.– Interesduna ez dago behartuta edozein administrazio egindako dokumentuak aurkeztera, baldin eta laguntza-deialdi honen organo kudeatzaileak dokumentu horiek kontsultatzeko edo eskuratzeko baimena eman badu. Ulertuko da interesdunak baimena ematen duela agiri horiek kontsultatzeko edo lortzeko, non eta ez duen aurka egiten modu arrazoituan; kasu horretan, eskaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Era berean, ez da nahitaezkoa izango interesdunak aurretik edozein administraziori aurkeztutako dokumentuak aurkeztea. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta laguntza-deialdi honen organo kudeatzaileak elektronikoki jaso beharko ditu, bere sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo hartarako gaitutako beste sistema elektronikoa batzuen bidez kontsultatuta. Ulertuko da enpresa interesdunak baimena ematen duela kontsulta hori egiteko, non eta ez duen aurka egiten modu arrazoituan; kasu horretan, eskaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Salbuespen gisa, aipatutako dokumentuak ezin badira eskuratu, berriz eskatu ahal izango zaio enpresa interesdunari horiek aurkezteko.

6.– Beste administrazio batzuekin informazioa trukatzeko zerbitzuen bidez, honako hauek egiaztatuko dira:

- Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Sistemarekiko atxikipena (1. irizpidea);

– Langile Autonomoen Araubide Berezian alta-egoeran egotea; horretarako, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari pertsona fisikoen lan-bizitzari buruzko txostena eskatuko zaio, 3. irizpidea (autoenplegua sortzea) eta 4. irizpidea (enpresa batean lan egiten duten autonomoen kopurua) balioesteko.

Bestalde, 6. irizpidea Interneten zuzenean kontsultatuz egiaztatuko da.

11. oinarria.— Aurkeztutako eskabideak zuzentzea.

1.— Eskabidea ez bada osorik bete, edo harekin batera ez bada aurkeztu aurreko oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazioa, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio hori egin ezean ulertuko dela eskabidean atzera egin duela, eta horretarako, dagokion ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Eskabidea aztertuta egiaztatzen bada laguntzaren xedeko proiektua hobeto sartzen dela II. eranskinetako beste apartatu batean —eskabidean adierazi ez dena, alegia—, eta horretako laguntzak lortzeko baldintzak betetzen baditu, ofizioz egingo dira dagozkion egokitzapenak, baldin eta aldaketa horiek ez badute funtsean aldatzen eskaeraren xedea.

2.— Jakinarazpenak EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

3.— Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko zer egunetan eta zer ordutan jarri zaion eskuragarri jakinarazpena jakinarazten den egintzako interesdunari, eta noiz sartu den haren edukian; une horretatik aurrera, jakinarazpena egintzat joko da. Baldin badakigu jakinarazpena iritsi zaiola baina, hamar egun natural igarota, ez baldin bada edukira sartu, ulertuko dugu jakinarazpena ukatu egin duela. Izapidea egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, non eta ez den garbi geratzen, ofizioz edo interesdunak eskaturik, teknikoki ezinezkoa izan zaiola edukira sartzea.

12. oinarria.— Esleitzeko prozedura.

Lehiaketa ez den beste norgehiagoka-prozedura bat erabiliko da dirulaguntza emateko. Lehiaketa horretan, aurrekontu-zuzkidura nahikoa ez bada, baloraziorik onena lortu dutenei bakarrik esleitzeko zaie dirulaguntza.

1.— Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko teknikariek epean aurkeztutako eskabideak banan-banan aztertu eta ebaluatuko dituzte, eta egiaztatuko dute betetzen direla agindu honetan ezarritako eskakizunak. Halaber, eskatzaileari dokumentazioa edo informazio argigarria eskatu ahal izango diote, eskabidean aurkeztutako dokumentazioa behar bezala ulertu ahal izateko.

2.— Esandako analisiaren emaitzak txosten indibidualizatu batean jasoko dira eskabide bakoitzeko; bertan, eskabide bakoitzari kalkulaturako dirulaguntzaren zenbatekoa ere ipiniko da.

3.— Ez dira kontuan hartuko agirien bidez egiaztatzen ez diren proiektuen balorazio-elementuak, 10.3 oinarrian dokumentazio osagarri gisa hala adierazten den kasuetan.

13. oinarria.— Balorazio-irizpideak.

Finantzatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten laguntza-eskabideak balioztatuko dira ondoren zehazten diren irizpide eta haztapenen arabera, agindu honen IV. eranskinean banakatuta:

Agindu honen IV. eranskinean daude xehatuta bi lerroetarako irizpideen haztapena eta lerro bakoitzerako irizpide espezifikoena.

1.— Bi lerroetako jardueretarako irizpide komunak.

Gehieneko puntuazioa 20 puntu izango da, honela banatuta:

– 1. irizpidea. Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta kontsumitzailearen aurrekoa. Pertsona eta erakundeek arlo hauetan duten konpromisoa sarituko da: berdintasuna, % 33ko edo hortik gorako

desgaitasun-maila duten emakumeen eta gizonen kontratazioa, eta kontsumitzaileen aurreko erantzukizuna, azken hori EAeko Kontsumoko Arbitraje Sistemara atxikitzea dela ulertuta. Gehienez ere 10 puntu emango dira.

– 2. irizpidea. Aurreko laguntzak. Deialdi honen aurreko lau urteetan turismo-arloko ekintzailatza eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programako dirulaguntzen onuradun izan ez diren pertsona eta erakundeak sarituko dira. Gehienez ere 10 puntu emango dira.

2.– Ekintzailatza-lerrorako balorazio-irizpide espezifikoak (I. eranskina).

– 3. irizpidea. Enpresa-proiektua. Enpresa-proiektua haren bideragarritasunaren eta izaera berritzailearen arabera balioetsiko da, baita enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko gaitasunaren arabera ere. Gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, honela banatuta:

- Proiektuaren bideragarritasuna. Gehienez ere 3 puntu emango dira.
- Autoenplegua sortzea; bereziki, emakumeentzat. Gehienez ere 12 puntu emango dira.

2025eko urtarrilaren 1etik laguntza eskatzen den egunera arte Langile Autonomoen Araubide Berezian alta-egoeran daudela egiaztatzen duten pertsonen kopurua baloratuko da. Inoiz ere ez dira baloratuko aldi horretatik kanpo egindako inskripzioak/altak, ezta laguntzaren xede den tipologiarekin bat ez datozen jarduera ekonomikoetakoak ere. Egiaztapena Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren «lan-bizitzari buruzko txostenaren» bidez egingo da. Ezin izango zaio langile berari punturik eman autoenplegua sortzeagatik eta soldatako enplegua sortzeagatik.

– Soldatako enplegua sortzea, kontratazio mugagabea eta lanaldi osokoa bultzatuz, bai eta emakumeena ere. Gehienez ere 15 puntu emango dira.

«Kotizazio-kontuaren kode batean alta-egoeran dauden langileak» txostenean agertzen diren alta-egoeran dauden langileen datua baloratuko da, laguntzaren bidez sortu nahi den enpresarena, eskabide-datan eguneratua. Txosten hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egingo du. Inola ere ez dira baloratuko 2025 baino lehen egindako altak, ez laguntza eskatu ondoren egindakoak, ez eta laguntzaren xede den negozioarekin bat ez datozen jarduera ekonomikoak dituzten enpresenak ere. Ezin izango zaio langile berari punturik eman autoenplegua sortzeagatik eta soldatako enplegua sortzeagatik.

– Negozioaren lehiakortasuna indartzea, hura elektronikoki merkaturatuta eta digitalizatuta. Gehienez ere 10 puntu emango dira.

3.– Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko lerrorako irizpide espezifikoak (II. eranskina).

Gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, honela banatuta:

– 4. irizpidea. Enpresaren tamaina. Neurri txikiagoko enpresek aurkeztutako proiektuen alde egingo da. 15 puntu emango dira, gehienez ere.

«Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantilla-txostenean» agertzen den enplegu-datua hartuko da kontuan, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokiona.

Kasu guztietan, «Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantilla-txosteneko» datuak eta negozioan jardueraren bat garatzen duten eta Langile Autonomoen Araubide Berezian alta-egoeran daudela egiaztatzen dutenen datuak batuko dira.

– 5. irizpidea. Jarduera-tipologiaren arabera. Diruz lagun daitezkeen jarduerak puntuatzeko, turismo-enpresak sektorean lehiakortasuna hobetzeko onartutako neurriak hartuko dira kontuan. Gehieneko puntuazioa 20 puntu izango da, honela banatuta:

- Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez. Gehienez ere 6 puntu emango dira.
- Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea. Gehienez ere 4 puntu emango dira.
- Turismo-jarduerak ingurunean inpaktu txikiagoa izatea. Gehienez ere 6 puntu emango dira.
- Turismo-eskaintzarako irisgarritasun unibertsala errazteko neurriak sartzeari: Gehienez ere 4 puntu emango dira.

– 6. irizpidea. Laguntzaren xede den negozioa online merkaturatzeko estrategia. Laguntzaren xede den negozioaren merkaturatze elektronikoa eta sare sozialetako presentzia baloratuko dira. Gehienez ere 5 puntu emango dira.

14. oinarria.– Ebaluazio Batzordea.

1.– Ebaluazio-batzorde bat eratuko da. Batzorde horrek konparaziozko ebaluazio bat egingo du, ebazpenean eta haren eranskinetan ezarritako balorazio-irizpidideak kontuan hartuta, edo, bestela, balorazio edo haztaperen bateratu bat egingo du, ebazpen honetan araututako laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontuaren irismenaren arabera.

Eskabideen lehentasun-ordena lortutako puntuazioen arabera izango da; hau da, puntuazio handiena duenak izango du lehentasuna.

Puntuazio bera lortzen duten eskabideen lehentasun-ordena zehazteko, diruz lagundu daitezkeen gastu handiena duenari emango zaio lehentasuna, eta, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa eta puntuazioa berdina bada, lehentasun-ordena eskabideak osorik betetzen diren dataren arabera ezarriko da; hau da, sarrera-erregistroaren eguna kontuan hartuta, lehendabizi egiten diren eskabideek izango dute lehentasuna.

2.– Bigarren oinarrian aurreikusitako lerro bakoitzean, laguntzak 6. oinarrian ezarritako zenbateko maximoetan emango dira, harik eta zuzkidura ekonomikoa agortu arte. Zenbatekoak esleitzeko prozesuan esleitzeke dagoen zuzkidura ez balitz nahikoa hurrengo gehieneko zenbatekoa duenari erantzuteko, soberakina hari emango zaio.

3.– Ebaluazio Batzordeak, eskabideak ebaluatu ondoren eta ateratzen den lehentasun-ordenaren arabera, egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egin beharko du, honako hauek proposatuko dizkio Turismo eta Ostalaritzako zuzendariari:

– Lagun daitezkeen jarduketetarako eskatu diren laguntzak ematea, horiek finantzatzera bideratutako kreditua agortu arte.

– Kreditua agortu delako edo agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako finantzatu ezin diren laguntzak ukatzea.

4.– Ebaluazio Batzordea Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko ordezkariak osatuko dute; horietako bat presidentea izango da, eta beste batek idazkari gisa jardungo du, botoa emateko eskubiderik gabe. Titularrak falta badira, ordezekoak izendatu ahalko dira. Hauek izango dira:

– Presidentea: Lorena Barroso Gonzalez de Arriluzea; ordezekoa: Maria Teresa Lezana Pérez.

– Idazkaria: Virginia Rivera Gago; ordezkoa: Jon Zalakain Hernandez

– Batzordekideak: Rosana Larrauri De Landa; ordezeko bokala: Elvira Mendia Rodriguez; Amaia Agirre Gogortza; batzordekide ordezkoa: Arantza Satóstegui Marinas; Ana Isabel Lekue Gallano; batzordekide ordezkoa: Ziortza Arrieta Alvarez.

Erabakiak hartzerakoan, agindu honetan ezarritako oinarri arautzaileetan eta, oro har, ordenamendu juridikoan ezarritakoa errespetatuko beharko du batzordeak, betiere bozketa-prozeduraren bidez. Ebaluazio Organoaren funtzionamenduari dagokionez, atal honetan aurreikusi gabe dauden kasu guztietan, modu osagarrian aplikatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. sekzioa.

Bere eginkizunak betetzeko, osatzen den kide anitzeko organoak, administrazioaren zerbitzu teknikoak laguntzeko, langile adituen laguntza erabili ahal izango du dirulaguntza jaso duten arlo guztietan.

15. oinarria.– Prozeduraren ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak eta errekurtsioak.

1.– Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak, 14.1 oinarrian aipatzen den kide anitzeko organoak egindako txostena ikusita, behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen hori behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikulua 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, eta interesdunei jakinaraziko zaie EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoko argitaratuta, <https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/> helbidean.

2.– Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari egokituko zaio administrazio-ebazpena ematea, eskatutako dirulaguntzak onartu edo ukatzen dituen. Ebazpen horretan, onuradunak, finantzatutako proiektuak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, baita lortutako puntuazioa ere. Halaber, eskabide ezetsiak identifikatuko ditu eta ukatzeko arrazoiak azalduko du.; alegia, laguntza-aginduan onuradun izateko eskatzen diren hautagarritasun-baldintzak eta -eskakizunak bete ez dituztenak, edo kasuan kasuko dirulaguntza-lerroari esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu delako ezetsiak.

Ebazpenean, orobat, onuradunari jakinaraziko zaio laguntzak de minimis izaera duela, eta, ondorioz, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2831/2023, 2023ko abenduaren 15ean argitaratua (EE) Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko duela; erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduen Tratatu 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, berariaz adierazi behar da elkarteko kide bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun izaera izango baitute.

3.– Ebazpena EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikokoan argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), agindu hau indarrean jartzen denetik gehienez sei hilabeteko epean, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Horrek guztiak ez du eragotziko argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda eta ebatzitako dirulaguntzen zenbatekoa ebazpena indarrean sartu eta hurrengo hilabeteetan.

Sei hilabete igarotzen badira ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, interesdunak bere eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango du, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berariazko ebazpena emateko duen betebeharra.

4.– Organo kudeatzaileak abisuak helaraziko dizkie interesdunei, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri ipinitakoan; horretarako, SMSak edo mezu elektronikoak bidaliko dira eskabide inprimakian adierazitako telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

5.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera. Gora jotzeko errekurtsua EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bitartez bakarrik izapidetuko da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

6.– Onuradunak dirua itzultzeko prozedura hasita badu, organo emaileak erabaki dezake onuradunari ordaintzeko dauden zenbatekoen ordainketa-aginduak etetea, kautelazko neurri giza, betiere itzulketa-espedientea hasteko proposameneari edo ebazpenean ezarritako zenbatekoa eta ordura arte sortutako berandutze-interesak gainditu gabe, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 20/2023 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

16. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Laguntzen onuradunek ondoren ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan ezarritakoa alde batera utzi gabe:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntza eman dela jakinarazita –ebazpena EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez argitaratuta– eta hamar eguneko epean pertsona onuradunak ukoa espresuki adierazten ez badu, ulertuko da dirulaguntza onartu egin duela.

b) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea. Horrez gain, laguntzaren xede diren helburuak eta jarduketak bete dituztela justifikatu beharko dute, agindu honetan eta laguntza emateko ebazpenean xedatutakoari jarraikiz.

c) Helburu berarekin ezein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emandako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu dituela jakinaraztea dirulaguntza eman duen organoari. Jakin bezain laster egin behar da komunikazio hori, eta, nolanahi ere, dirulaguntza justifikatzeko agiriekin batera.

d) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektibotan aldaketarik badago, haren berri ematea aldaketa hori egin baino lehen.

e) Dirulaguntza jaso duten inbertsioen edo jardueren finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babesa aipatu behar da, eta Sailaren logotipoetako bat webgunean sartu, baldin eta webgunea badu. Bestela, eguneratuta eta aktibo dituen sare sozialetan. Webgunerik edo sare sozialik izan ezean, establezimenduko leku ikusgarri batean emango du horren berri, kartel finkoen bidez. Logotipo horiek eskuragarri daude justifikazio-atalean (www.euskadi.eus/servicios/1010213) eta Eusko Jaurlaritzaren Erakunde-Nortasunaren Eskuliburuan (<https://www.euskadi.eus/manual-identidad/>).

f) Laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten zereginak aurrera eramanez, turismoaren alo-rreko eskumena duen EAEko Administrazioaren sailak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dien informazio oro ematea.

g) Jasotako funtsen aplikazioa egiaztatzen duten dokumentuak eta fakturak gordetzea, baita dokumentazio elektronikoa ere, EAEko Administrazio Orokorrak horiek egiaztatzeke eta kontrolatzeko aukera izan dezan, gutxienez, 4 urteko denbora-tartean, diruz lagundutako jarduketaren azken justifikazioa egin eta hurrengo egunetik aurrera.

h) Enpresa-deslokalizazioan ez erortzeko konpromisoa hartzea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua arabera.

17. oinarria.– Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Justifikaziora sartzeko eta hura betetzea egoitza elektronikoaren bidez soilik egin ahalko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

2.– Pertsona onuradunak frogatu beharko du, baliabide telematikoen bidez, bete dituela ezarritako baldintzak eta lortu duela dirulaguntzaren xede zen helburua.

3.– Laguntza emateko ebazpena berariaz edo isilbidez onartu ondoren egingo da laguntzaren justifikazioa. Justifikazioa egiteko epea 2025eko abenduaren 10ean amaituko da. Epe hori igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko lurralde-bulegoetako teknikariek errekerimendua egingo diote pertsona onuradunari, hamabost eguneko epean aurkez dezan (epea luzaezina da). Ezarritako epearen barruan justifikaziorik ez aurkeztea arrazoi izango da ez-betetze gisa hartzeko.

4.– 2024ko abenduaren 14tik 2025eko abenduaren 10era arte igorritako eta ordaindutako fakturak onartuko dira. Ondorioz, ez dira kontuan hartuko epe horren aurretik edo ondoren egindako ordainketak, epeka eta/edo geroratuta adostutakoak barnean hartuta.

5.– Justifikazioa egiteko, egindako gastuaren justifikazio-kontu erabiliko da. Horrek dokumentazio hau bildu beharko du gutxienez:

- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke jarduketaren azalpen-memoria; zer jarduera egin eta zer emaitza eskuratu diren adierazi behar da. Azalpen memoria egiteko egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu erabili behar da eta jarduketaren emaitzaren argazkiak erantsi behar dira.

- Justifikazio-memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua frogatzen duena, honakoez osatua:

- a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, enpresa hartzekodunaren identifikazioarekin (IFZ eta enpresaren izen soziala), faktura emandako data, kontzeptua eta zenbatekoa (BEZik gabe) eta ordainketa-eguna. Fakturen koadroa egoitza elektronikoan garatutako eta emandako ereduaren arabera beteko da. Gastuak egiaztatzeke, fakturak eta dagozkien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

- b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, zenbatekoa eta jatorria ere aipatzen dituen; adieraziko da, halaber, betetzen dituela oinarrietan eta ebazpenean ezarritako baldintzak, jarduerak egin dituela eta proiektu horren emaitzak lortu dituela –jardueraren azken memoriaren eta justifikazio-kontuaren bidez hala justifikatzen baitu– eta egiazkoak direla datuak eta aurkeztutako dokumentuak.

- c) Hala balegokio, agindu honetako 7.5 oinarrian adierazitako kontratuetarako eskatutako hiru eskaintzak, baita hautaketa justifikatzen duen memoria ere, proposamen ekonomikoaren aldeko hautua egiten ez denean.

d) Jarduera profesionali dagozkien epigrafeetan ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dauden pertsona fisikoek, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) buruzko araudiak lanbide-jardueraren lehen ekitaldietan atxikipenetan tasa murriztua aplikatzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte, dagokien eskabidea aurkeztu beharko dute beteta (VI. eranskina).

e) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babesletzari buruzko aipamenaren justifikazioa, lagin grafikoak aurkeztuta, 16. oinarrikoko e) atalean zehazten den bezala.

6.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko teknikariek aurkeztutako dokumentazioa aztertuta egiaztatuko dute egin direla diruz lagundutako jarduerak. Era berean, ausazko laginketa baten bidez egiaztatuko dituzte egoki iritzitako gastu-egiaztargiri jatorrizkoak, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko argibide nahikoa eman dezaten. Aukeraketa horretarako oinarritzat hartuko da lagina ez izatea egindako egiaztapenen % 20 baino txikiagoa lurralde bakoitzean.

7.– Dokumentazioa egiaztatzean ikusten bada aurkeztutako justifikazioan zuzendu daitezkeen akatsak daudela, horiek zuzentzeko eskatuko da, eta hamar eguneko epea emango da horretarako.

8.– Dirulaguntza likidatzeko, kontuan hartuko dira onuradunak benetan egindako eta justifikatutako diruz lagundutako gastua, baita diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko beste entitate batzuek emandako laguntzak ere. Dirulaguntzaren azken zenbatekoa ezin izango da inola ere handiagoa izan dirulaguntza emateko ebazpenean adierazitako dirulaguntzaren zenbatekoa baino. Justifikazioen zenbatekoak, II. eranskinean aurreikusitako jarduketan atal berari dagozkionak, euren artean konpentsatu ahal izango dira.

9.– Justifikaturiko eta likidazioan onartutako kostua onetsitako aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, eta I. eta II. eranskinetan diruz lagundutako jarduerarentzat ezarritako diruz lagun daitezkeen gutxieneko gastua baino handiagoa, dirulaguntza berriz kalkulatu da, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuta.

10.– Aipatutako alderdi guztiak egiaztatu dituztenean, izendatutako teknikariek txosten bat emango dute; bertan, justifikatutako eta onartutako gastuaren arabera, dagokion dirulaguntzaren likidazioa proposatuko da. Hala ere, justifikazioaren azterketaren emaitzak emandako dirulaguntza gutxitzea badakar, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariari dagokion dirulaguntzaren likidazioa proposatu baino lehen, hamar eguneko entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari, egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan, hala badagokio.

11.– Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak aginduko du dirulaguntza ordaintzeko.

12.– Dirulaguntzaren ordainketa ezingo da egin, baldin eta erakunde onuradunak ez baditu ordaindu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, orobat, dirulaguntzen itzulketa-ebazpen bat dela medio, zorduna bada.

18. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira eta beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik beste dirulaguntza batzuk edo bestelako laguntzak jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, betiere aldaketarekin ustezko ez-betetzeak estaltzen ez badira, Agindu honen 4., 5. eta 7. oinarrietan ezarritako gutxieneko baldintzak eta hautagarritasun-baldintzak betetzen badira, baita I. eta II. eranskinetan jasotako diruz lagun daitezkeen jarduerak ere, eta Dirulaguntzen Erregimena arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25.1 artikuluko baldintzak betetzen badira. Ondore horietarako,

aldatzeko ebazpena emango du Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak, alderdi interesdunari aurretiaz entzunaldia eskainita, eta emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

19. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Eskatzaileak aukera izango du eskabidean atzera egiteko. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak bete-betean onartuko du atzera egite hori ebazpen baten bidez, eta prozedura bukatutzat joko du.

2.— Laguntzaren onuradunak, halaber, uko egin ahal izango dio eman zaion laguntzari. Emandako dirulaguntza onartu ondoren ere uko egin ahal izango zaio. Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak berriaz onartuko du uko-egitea, ebazpen baten bidez, eta prozedura amaitutzat emango du.

20. oinarria.— Ikuskatzea.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egokitzen jotako ikuskapen eta egiaztapen guztiak egingo ditu, aurkeztutako proiektuen betearazpenari dagokionez; eta onuradunek eskatzen zaien informazio guztia aurkeztu beharko dute, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dezaketen kontrola alde batera utzi gabe, eta, betiere, jasotako laguntzei dagokienez dituzten eginkizunak betez.

21. oinarria.— Ez-betetzeak.

1.— Onuradunak ez badu betetzen agindu honetan ezarritako betebeharren bat, edo, hala bada, dagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, edo proiektuaren zati bat betetzen ez badu, eta, ondorioz, laguntza zertarako eman zen osorik indargabetzen badu, edo Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako itzulketa-arrazoien bat gertatzen bada, Turismo eta Merkataritzako sailburuordea, ez-betetze espedientea egin ondoren —interesdunari entzunaldia emango zaio espedientea—, ebazpen bidez adieraziko du dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu duela, osorik edo zati batean, eta, hala badagokio, aipatutako legearen 40. artikuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkiola jasotako laguntzak eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak, proiektuaren gauzatze-mailaren arabera proportzionalki. Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.— Segidan aipatzen den gorabeheraren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik kobratzeko eskubidea galduko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak I. eta II. eranskinetan apartatu bakoitzerako ezarritako diruz lagun daitekeen gutxieneko gastuarekin baino zenbateko txikiagoarekin egitea.

b) Justifikazio-agiriak ezarritako epetik kanpora aurkeztea, delako errekerimendua egin denetik aurrera.

c) Laguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak ez betetzea.

d) Inbentarioan jasotzeko moduko ondasunei dagokienez, diruz lagundutako ondasunak ez bideratzea dirulaguntza eman den xederako, Aginduaren 7. oinarrian ezarritako denboran.

3.— Justifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa partzialki ez izateak dirulaguntza murriztea ekarriko du, aurkeztu gabeko dokumentazioaren proportzio bereko zenbatekoan.

4.— Turismo eta Ostalaritza zuzendariaren eskumena da ez-betetze espedientea hastea, eta Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari espedientea ebaztea. Ez-betetzearen espediente hori

EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bitartez bakarrik izapidetuko da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

5.– Prozedura administrazio arau-hauste izan daitezkeen egitateen ondorioz hasten bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, behar den zehapen-prozedurari ekin diezaion.

22. oinarria.– Datu pertsonalak.

Izaera pertsonaleko datuen babesaren arloko informazio-klausula (3/2018 Legea, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

Arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza.

Helburua: EMET 2025 laguntza-programako eskabideak kudeatzea.

Legitimazioa: interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz egindako misioa betetzeko beharrezko tratamendua (Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra).

Hartzaileak: gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: https://www.euskadi.eus/web01-sede/eu/contenidos/informacion/egoitza_datuen_babesa/eu_egoitza/index.shtml

II. ERANSKINA

TURISMO-NEGOZIO BERRIAK SORTZEKO EKINTZAILETZA-LAGUNTZEN LERROA

1.– Lerro honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-negozio berriak sor daitezen sustatzea da.

Lerro honetarako hautagaiak dira Agindu honen 4. oinarrian ezarritako baldintzak bete eta 2025eko ekitaldian turismo-negozio berriak abian jartzeko beharrezkoak diren inbertsioak egiten dituzten pertsonak. Negozio horiek ekitaldi horretan abiarazi beharko dira, 2026ko urtarrilaren 12 baino lehen.

Agindu honetako 4. oinarrikoko 1. apartatuko a), b) eta h) letretan zerrendatutako tipologietakoren batean inbertsioak egiteko laguntza eskatzen duen pertsona Euskadiko turismo enpresen eta jardueren erregistroan alta eman beharko du, laguntza eskatzen duen jardueraren titular moduan, 2024ko abenduaren 31tik aurrera eta 2026ko urtarrilaren 12 baino lehen. Baldintza hori betetzeko, kontsulta egingo zaio Euskadiko turismo enpresen eta jardueren erregistroari.

Gainerako tipologiei dagokienez, eskatzaileak alta eman beharko du ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafean (aurrerantzean, EJZ), laguntza eskatzen duen negozioan edo establezimenduan jarduteagatik dagokionean, aurreko paragrafoan ezarritako aldi berean. Baldintza hori betetzeko, kontsulta egingo zaie Foru Aldundiei.

Pertsona juridikoek, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek eskabidea egiteko epea amaitu baino lehen eratuta egon beharko dute.

2.– Lerro honetan diruz lagundu daitekeen gutxieneko gastua 10.000 eurokoa da.

3.– Honako turismo-negozio hauek balioetsiko dira:

– Lehiakortasuna indartzen dutenak negozioa online merkaturatuz eta digitalizazio bidezko enpresa-berrikuntzaren bitartez.

– EAEn enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen dutenak, emakumeen ekintzailatza eta kontratazioa bultzatuz, enpleguan dagoen genero-arrakala murrizteko asmoz.

4.– Negozio berriek baliabide naturalak eraginkortasunez kudeatzen, ingurumena zaintzen eta klima-aldaketari aurre egiten lagunduko duten neurriak hartu beharko dituzte. Neurri horiek eskabidearekin batera doan azalpen-memorian zehaztu beharko dira, proiektua baloratzeko. Informazio hori ez ematea laguntza ukatzeko arrazoia izango da.

5.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren jarduera hasten duten turismo-ostatuko establezimenduek EAEko Turismo Administrazioan laguntza eskatu aurretik izapidetu beharko dute turismo-enpresa eta jarduerari buruz indarrean dagoen araudia egokitzeko txosten-eskabidea. Ez dira onartuko turismo-ostatuak sortzeko laguntza-eskabideak, baldin eta, aipatutako administrazioak egindako txostenaren arabera, ez badatoz bat dagokien turismo-araudiarekin.

6.– Jendeari irekitako establezimenduak irisgarriak izan beharko dira, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta lege hori garatzeko arau teknikoetan ezarritakoaren arabera. Bestalde, erabilera turistikoko etxebizitzek eta etxebizitza partikularretako logeak etxebizitzaren irisgarritasuna bide publikotik bermatu beharko dute, aipatutako irisgarritasun-araudiaren arabera turismo-ostatuei aplikatzen zaizkien baldintzetan.

7.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak 2025eko ekitaldikoak izan beharko dira:

a) Eraketa-gastuak: erregistroa, notariotza, proiektu teknikoak.

b) Laguntzaren xede den turismo-jarduera garatzen den negozio-lokalaren errentamendua, baldin eta: ez bada aurreikusten hura erosteko eskubidea; ez bada familia-etxebizitzaren zati bat edo beste enpresa batekin partekatutako espazio bat; ez badago lokalaren errentatzailearekin bigarren mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasunik, eta errentatzailea ez bada erakunde onuradunaren bazkide edo partaide. Apartatu honetan sartuko da, halaber, espazio edo aretoen alokairua, turismo-negozio berriarekin lotutako lan-bilerak eta aurkezpenak egiteko.

c) Abian jartzeko gastuak: bideragarritasun-azterketak, marken erregistroa, irudi korporatiboaren diseinua eta establezimenduaren irisgarritasunari buruzko borondatezko txostena.

d) Turismo-negozioa sortzeko behar diren aktibo finkoetako inbertsioak:

– Turismo-negoziorako soilik erabiltzen diren instalazioak egokitzeko obrak. Ez dira diruz lagunduko erabilera turistikoko etxebizitzetan eta etxebizitza partikularretako logeletan egindako obrak, etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko direnak salbu. Erabilera turistikorako etxebizitzak eraikitzeke obrak ere ez dira diruz lagunduko.

– Turismo-negozioan soilik erabiltzeko altzariak eta ekipamendua erostea. Ez dira diruz lagunduko erabilera turistikoko etxebizitzetako eta etxebizitza partikularretako logeletako altzariak edo ekipamenduak, mugikortasun- eta komunikazio-arazoak dituzten pertsona guztiei etxebizitzaren irisgarritasuna berdintasunez bermatzeko beharrezkoak diren elementu teknikoak izan ezik.

– Garraio-elementuak erostea, enpresakoak izan ezik, betiere diruz lagundutako jarduera horietan garatzen bada edo garatzeko ezinbestekoak badira. Ibilgailu motordunek % 100 elektrikoak izan beharko dute.

e) Turismo-negozio berrirako ekipamendu informatikoa erostea.

f) Negozioan soluzio teknologikoak ezartzeko gastuak:

– Negozioaren kudeaketa digitalizatzea: hodeiko konputazioa, ordainketa eta kobrantza segurua, negozioaren kudeaketa integraleko sistemak, Big Data prozesuetan oinarritutako soluzio aurreratuak (prezioen aurreikuspen-analisia, merkatuen monitorizazioa eta abar), fakturazio elektronikorako soluzioak (TicketBAI sistemaren softwarea barne), bezeroarentzako zerbitzuak kudeatzea, erreserbak kudeatzea, eskaera digitalak, kobratzeko kutxa adimenduna, saltokiko terminalak, txatbotak eta abar.

– Berrikuntza sustatzea negozio-prozesuetan eta I+G+Bko jarduerak garatzea; esaterako, turismo-jardueretara bideratutako mugikorretarako aplikazioak, edota negozioaren kudeaketara (check-in eta check-out, gelen baliagarritasuna eta/edo zerbitzuena...), teknologia immertsiboen multimedia-inguruneak (errealitate areagotua, errealitate birtuala, errealitate immertsiboa, hologramak eta abar); turismo-bitartekoak eta -produktuak gehiago gozatzeko eta ezagutzeko gamifikazio-programak, edo turismo-eskaintza eta -esperientzia bereiztera bideratutako bestelako elementu teknologikoak.

– Establezimenduaren kudeaketa adimenduneko sistemak (domotika) ezartzea (hala nola kudeaketa-zentrala, sentso-re-detektagailuak, eragingailuak, komunikazio-euskarri digitalak eta abar) eta hurbiltasun-automatismoak eta -aktibatzaileak txertatzea (mikrouhin bidezko sentso-reak, infragorriak, laserrak), establezimenduaren ukipen-gainazalak murrizteko/ezabatzeke, bai eta espazio komunak/partekatuak aireztatzeko sistema adimendun eta automatizatuak eta haietara

sartzea kontrolatzeko sistema teknologikoak ere (pertsonak zenbateko eta edukiera kontrolatzeko sistemak), besteak beste, birus eta bakterio patogenoak zabaltzea saihesteko eta segurtasuna areagotzeko establezimenduan.

– Haririk gabeko konektibitatea eskaintzea turismo-ostatueta.

Diruz lagunduko dira turismo-ostatueta establezimenduetan hari gabeko sareak zabaltzeko helburua duten inbertsioak, establezimenduaren azaleraren % 90 hartzen dutenak, gelak eta eremu komunak barnean hartuta (itxiak eta irekiak).

Konektibitateko inbertsioez gain, diruz lagunduko dira hauek: sarearen estaldura eta neurria aztertzeke lanetarako zerbitzu profesionalak azpikontratatzek, sarea hedatzeko establezimenduan egiten diren egokitzapen teknikoak, sarea instalatu, parametrizatu, konfiguratu eta egiaztatzeke zerbitzuak, eta emandako zerbitzuak egiaztatzekeak, sarearen administratzaileak gaitzeke zerbitzuak eta hirugarrenei azpikontratatu beharreke edozein jarduera, baldin eta hari gabeko sarea hedatzeko edo hobetzeke ezinbestekoa bada eta horrekin lotuta badago.

Agindu honen babesean dirulaguntza ematen den hari gabeko konexio zerbitzua doan eskaini beharko da 3 urtean, gutxienez, fakturazioaren egunetik kontatzen hasita.

g) Turismo-negozioa online merkaturatzek.

Webgune dinamikoak garatzek behar diren gastuak onartuko dira, moldagarria/responsive motako diseinuarekin eta establezimendu fisikoaren geolokalizazioarekin, bai eta produktuak eta/edo zerbitzuak zuzenean merkaturatzek eta saltzeko plataformak garatzek behar direnak ere (webgunetik bertatik online merkaturatzek; denda birtualak, nire online denda, etab.).

8.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

– Lursailak, eraikinak eta lokalak erostek, eta eskualdatze-eskubideak.

– Enpresako ibilgailuak erostek.

– Pertsonal-gastuak.

– Profesionalen prestakuntza- eta aholkularitza-gastuak, I. eta II. eranskinetan zehaztutakoak izan ezik.

– Negozioaren funtzionamendu-gastu orokorrak (argia, ura, gasa, elektrizitatek, telefonoa, ohiko aholkularitza-gastuak, kontsumigarriak, etab.).

– Berrikusketa- edo mantentze-gastuak, bai eta aktibo finkoak birjartze hutsekoak ere, energia-efizientzia handiko aktiboekin ordeztan direnean izan ezik (B, C etiketa energetikoa edo baliokideak: A+++, A++ eta A+).

– Finantzaketako edota aholkularitza juridiko eta finantzarioko gastuak, zeharkako zergak edota pertsonalak notario- eta erregistro-errentaren gainekoak, administrazio-baimenen tasak, lizentziak edo antzekoak, aurreko apartatuan zehaztutakoak izan ezik.

– Diruz lagundu daitezkeen edozein aktibo finko alokatzek, lokalena izan ezik, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzetan.

– 100 euro garbi edo gutxiagoko aurrekontuak, proformako fakturak edo behin betiko fakturak.

– Eskatzaileak fabrikatutako, egindako edo garatutako aktiboak, bai eta diruz lagun daitezkeen edozein kontzeptu edo jarduera ere, baldin eta hornitzaileak dirulaguntzaren eskatzaileari lotutako

pertsona edo erakunde bat bada, 20/203 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoaren 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

– Enpresan bertan fabrikatu edo ekoizteko aktiboak erostea, merkaturatzeko eta azken kontsumitzaileei edo beste enpresa batzuei saltzeko, bai eta ekoizpen hori kudeatzeko eta merkaturatzeko aplikazio informatikoak eta programak ere.

9.– Instalazio elektrikoekin, argiztapenarekin, isolamenduarekin eta segurantzarekikoak lotutako inbertsioak eta etxetresna elektrikoen erosketak energia-efizientziako irizpideen arabera egin beharko dira. Etiketatzeko energetikoa behar duten gailuen kasuan, B, C eskalen edo baliokideen (A+++, A++, A+) etiketa dutenak lagundu ahal izango dira diruz.

III. ERANSKINA

TURISMO-ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO LAGUNTZEN LERROA

1.– Lerro honen xedea turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea da, berrikuntza teknologikoa babestuta, haien turismo-eskaintza hobetuta eta optimizatuta, eta turismo seguru, jasangarri, arduratsu eta irisgarria izateko egokituta.

Lerro honetarako hautagaiak dira agindu honen 4. oinarrian ezarritako baldintzak bete eta 2024ko abenduaren 14tik 2025eko abenduaren 10era bitartean turismo-negozioen lehiakortasuna hobetzeko beharrezko inbertsioak egiten dituzten pertsonak.

Agindu honetako 4. oinarriko 1. apartatuko a), b) g) eta h) letretan zerrendatutako tipologieta-koren batean inbertsioak egiteko laguntza eskatzen duen pertsona Euskadiko turismo enpresen eta jardueren erregistroan agertu beharko da, laguntza eskatzen duen jardueraren titular moduan, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen. Baldintza hori betetzeko, kontsulta egingo zaio Euskadiko turismo enpresen eta jardueren erregistroari.

Gainerako tipologiei dagokienez, eskatzaileak alta emanda egon beharko du ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafean (aurrerantzean, EJZ), laguntza eskatzen duen negozioan edo establezimenduan jarduteagatik dagokionean, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen. Baldintza hori betetzeko, kontsulta egingo zaie Foru Aldundiei.

Kasu guztietan, establezimendua jendearentzat irekita eta martxan egon behar da lehen adierazitako egun berean.

2.– Eranskin honetan, honako helburu hauek dituzten jarduketak lagunduko dira:

2.1.– Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez.

Atal honetan diruz lagundu daitekeen gutxieneko gastua 5.000 euro garbikoa da.

Honako hauetarako beharrezkoak diren gastuak lagunduko dira diruz:

2.1.1.– Negozioaren kudeaketan aurrera egiteko soluzio teknologikoak ezartzea: hodeiko konputazioa, ordainketa eta kobrantza segurua, negozioaren kudeaketa integraleko sistemak, Big Data prozesuetan oinarritutako soluzio aurreratuak (prezioen aurreikuspen-analisia, merkatuen monitorizazioa eta abar), fakturazio elektronikorako soluzioak (TicketBAI sistemaren softwarea barne), bezeroarentzako zerbitzuak kudeatzea, erreserbak kudeatzea, eskaera digitalak, kobratzeko kutxa adimenduna, saltokiko terminalak, txatbotak eta abar.

Ezarpenaren urteari dagozkion gastu guztiak onartuko dira, deialdi honi dagokion urtekoak badira, honako hauek izan ezik:

- Web-orriak sortzeko eta eguneratzeko gastuak, eta domeinuak erregistratzeko, berritzeko eta kudeatzeko gastuak.

- Programa informatikoak mantentzeko eta berritzeko gastuak.

- Zerbitzuagatiko aldizkako ordainketa-kuotak (SaaS soluzioak, erabiltzeagatik ordaintzea, etab.), eta web-ostatatzeari lotutakoak, salbu kontratuaren lehen urteari dagozkionak, eta betiere aipatu kontratua 2025ean gauzatzen bada.

– Informatika-ekipamendua diruz lagunduko da, baldin eta beharrezkoa bada laguntzaren xede den ekimena gauzatzeko, eta proiektua baloratzeko azalpen-memorian argi eta gabi justifikatzen bada.

2.1.2.– Berrikuntza negozio-prozesuetan eta I+G+Bko jarduerak garatzea; esaterako, turismo-jardueretara bideratutako mugikorretarako aplikazioak, edota negozioaren kudeaketa (check-in eta check-out, gelen baliagarritasuna eta/edo zerbitzuena...), teknologia immertsiboen multimedia-inguruneak (errealitate areagotua, errealitate birtuala, errealitate immertsiboa, hologramak eta abar); turismo-bitartekoak eta -produktuak gehiago gozatzeko eta ezagutzeko gamifikazio-programak, edo turismo-eskaintza eta -esperientzia bereiztera bideratutako bestelako elementu teknologikoak.

2.1.3.– Establezimenduaren kudeaketa adimenduneko sistemak (domotika) ezartzea (hala nola kudeaketa-zentrala, sentsore-detektigailuak, eragingailuak, komunikazio-euskarri digitalak eta abar) eta hurbiltasun-automatismoak eta -aktibatzaileak txertatzea (mikrouhin bidezko sentsoreak, infragorriak, laserrak), establezimenduaren ukipen-gainazalak murrizteko/ezabatzeke, eta establezimendura sartzeko kontrolatzeko sistema teknologikoak ere (pertsonak zenbateko eta edukiera kontrolatzeko sistemak), besteak beste, birus eta bakterio patogenoak zabaltzea saihesteko eta segurtasuna areagotzeko establezimenduan.

2.1.4.– Turismo-ostatuen haririk gabeko konektibitatea.

Diruz lagunduko dira turismo-ostatuetaiko establezimenduetan hari gabeko sareak zabaltzeko edo hobetzeko helburua duten inbertsioak, establezimenduaren azaleraren % 90 hartzen dutenak, gelak eta eremu komunak barnean hartuta (itxiak eta irekiak).

Zehazki, honako hauek:

a) Establezimenduaren hari gabeko konektagarritasuna zabaltzeko edo hobetzeko inbertsioak, eta ez dira kontuan hartuko diruz lagunduko hari gabeko sarea edo Internetera sartzeko linea hedatzearen ondorioz establezimenduan egiten diren egokitzapen ez-teknikoak eta obren gastuak.

b) Establezimenduan haririk gabeko konektibitatea zabaltzeko edo hobetzeko diren zerbitzu profesionalak azpikontratatzeko. Zerbitzu horien barnean sartzen dira honako hauek: sarearen estaldura eta neurria aztertzeke lanak, sarea hedatzeko establezimenduan egiten diren egokitzapen teknikoak, sarea instalatu, parametrizatu, konfiguratu eta egiaztatzeke zerbitzuak, eta emandako zerbitzuak egiaztatzekeak, sarearen administratzaileak gaitzeke zerbitzuak eta hiru-garrenei azpikontratatu beharreke edozein jarduera, baldin eta hari gabeko sarea hedatzeko edo hobetzeko ezinbestekoa bada eta horrekin lotuta badago.

Agindu honen babesean dirulaguntza ematen den hari gabeko konexio zerbitzua doan eskaini beharko da 3 urtean, gutxienez, fakturazioaren egunetik kontatzen hasita.

2.2.– Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea.

Atal honetan diruz lagundu daitekeen gutxieneke gastua 5.000 euro garbikoa da.

Honako helburu hauek dituzten jarduketak lagunduko dira:

2.2.1.– Turismo-zerbitzu edo -produktu berriak sortzea, enpresak edo establezimenduak aurretik emandakoez bestelakoak; esaterako, eskaintza handitzera bideratutako negozio-lerro berriak, edo eskaintza dibertsifikatzeko, merkatuko nitxo edo mikronitxo berrietara egokitzea eskaintza bera. Horrek turismo-negozioen jarduketa mantentzen/suspertzen lagun dezake.

Diruz lagundu ahal izango dira obra hauek egiteke kostuak: instalazioak egokitzea eta produktu edo zerbitzua eskaintzeke behar diren ekipamendua eta altzariak erostea.

Ez da gastu hautagarritzat hartuko, negozioak hobetu edo modernizatzeko, altzariak eta ekipamenduak birjartzea, lokalak eta instalazioak birgaitzea edo eraberritzea, baldin eta ez bada negozio-lerro berririk irekitzen edo ez bada halakorik egokitzen merkatu nitxo berrietara.

2.2.2.– Instalazioak eta ekipamendua hobetzea jatetxeetan edo turismo-ostatueta.

Honako hauek lagunduko dira diruz:

- Sukaldeak egokitzeko obren kostuak, sukaldeok erabat edo zati batean ireki, eta bezeroen bistara gera daitezen, bezeroek kozinatze lanak ikusi, eta, batzuetan, sukaldariarekin batera aritu edo platerak nahieran pertsonalizatzeko aukera izan dezaten, horrek balio erantsia ematen baitio esperientzia gastronomikoari. Jakiak agerian manipulatu eta prestatzeko ekipamendu-erosketak ere lagunduko dira diruz, sukaldea apartatu honetan xedatutakoari jarraikiz erreformatzearekin batera egiten badira.

- Aldi baterako eremu komunetan itxitura duten edo ez duten terrazak instalatzeko, modernizatzeko eta egokitzeko beharrezkoak diren altzariak eta ekipamenduak erostea.

- Elikagaiak eta edariak hozteko ganberak erostea eta instalatzea, bai eta pintxoak hozteko eta kontserbatzeko sistemak eta gailuak ere.

- Mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna erraztuko duten oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako berrikuntzak.

2.2 apartatuari jarraikiz egiten diren instalazio elektrikoekin, argiztapenarekin, isolamenduarekin eta klimatizazioarekin lotutako inbertsioak eta etxetresna elektrikoek erostetako energia-efizientziako irizpideen arabera egin beharko dira. Etiketatze energetikoa behar duten gailuen kasuan, B, C eskalen edo baliokideen (A+++, A++, A+) etiketa dutenak lagundu ahal izango dira diruz.

2.3.– Eskaintza turismo segurura, jasangarrira, arduratsura eta irisgarritara bideratzea.

Atal honetan diruz lagundu daitezkeen gutxieneko gastua 5.000 euro garbikoa da.

Helburu hauek dituzten jarduerak lagunduko dira:

2.3.1.– Turismo-jarduerak ingurunean inpaktu txikiagoa izatea, honako hauen bidez:

- a) Berokuntza, klimatizazio, aireztapen eta ur bero sanitarioko instalazio termikoetan energia-efizientzia hobetzea eta energia berriztagarrien erabilera handitzea, eta instalazio termikoen banaketa, erregulazio, kontrol eta emisioen azpisistemen energia-efizientzia hobetzea, honako hauen bidez:

- Energia konbentzionalaren ordez, honako hauek erabiltzea, besteak beste: energia fotovoltaikoa eguzki-energia termikoa, geotermikoa, biomasa, aerotermia eta hidrotermia, aireztapen naturaleko eta behartuko sistemak, kanpoko aire bidez doan hozteko sistemak, beroa eta erauzte-aria berreskuratze sistemak eta hondar-energiak aprobetxatzeko sistemak eta instalazioaren energia-kontsumoa murrizteko lurruntze-teknikak erabiltzen dituzten sistemak.

- Ekipamenduetan edo instalazioetan kontrol- eta erregulazio-sistemak ezartzea, energia aurrezteko; esaterako, giro-tenperaturaren aldaketen arabera edo erabiltzailearen presentziaren edo beharren arabera; eta, bereziki, instalazioak bitarteko digitalen bidez urrunetik kontrolatzea edo modu automatikoan kontrolatzea ahalbidetzen duten elementuak (eraikinaren eguzki-oihal, pertsiana edo errezelen kontrol-sistema automatikoak; klimatizazioaren erregulazio-sistema; etxetresna elektrikoak programatzeko edo urrunetik edo era automatikoan martxan jartzeko sistemak; leihoak ireki eta itxeko detekzio-sistemak, etab.); ur bero sanitarioaren hornidura elektronikoki

kudeatzeko sistemak; balbula termostatiko mekanikoak edo elektronikoak, igortzaileetara bideratutako bero-ekarpena erregulatu, eta UNE-EN-215 betetzeko.

Diruz lagundu ahal izango dira jarduketarekin zerikusia duten obrak eta/edo instalazioak egiteko kostuak, ekipamenduak eta materialak erosteko kostuak, eta dauden instalazioak eraisteko kostuak.

Etiketatzeko energetikoa behar duten gailuen kasuan, B, C eskalen edo baliokideen (A+++, A++, A+) etiketa dutenak lagundu ahal izango dira diruz.

Ez dira diruz lagunduko:

- Klimatizazio-ekipoak instalatzeko, berritzeko edo hobetzeko jarduerak (beroa eta/edo hotza).
- Jarduera turistikoa egiten den eraikinaren, lokalaren edo establezimenduaren inguratzailerako termikoaren edozein elementuren gaineko jarduketa oro.

b) Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea, hauen bidez:

- Lehendik dauden argiztapen-sistemen ordeztuak direnak jartzea;
- Bitarteko digitalen bidez bertatik, urrutetik edo era automatikoki kontrolatu ahal izateko sistemak eta elementuak ezartzea: argiak piztu, itzali edo erregulatzea, toloa, pertsonen edo errezelen kontrol automatikoa, guneen presentzia-kontrola edo argiztapena argi naturalaren ekarpenaren arabera erregulatzea.

Obrak eta/edo instalazioak egiteko eta ekipamenduak eta materialak erosteko kostuak diruz lagunduko dira.

Ez da laguntza-hautagaitzat hartuko luminariak efizienteagoak diren batzuez aldatze soila, instalazio elektrikoa berritzeko inbertsioaren barruan sartuta ez badago.

c) Garraio eta mugikortasun efizientea hobetzea, betiere diruz lagundutako jarduera bertan egi-
ten bada edota garatzeko ezinbestekoa bada, edo bezeroei eskainitako zerbitzuetan hobekuntza
badakar, hauen bidez:

- Motor % 100 elektrikoa duten ibilgailuak eskuratzea eta ibilgailu arinak gas naturalez edo GLPz ibiltzera eraldatzea.
- Elektrizitatea kargatzeko puntuak eta erregai alternatiboenak instalatzea.
- Pedalkada lagunduko bizikletak eta trizikloak erostea.

2.3.2.— Turismo-enpresek online eskaintzen dituzten instalazioak, zerbitzuak, produktuak eta komunikazio-sistemak eskuratzeko bereziki garaturiko teknologiak biltzea, berdintasun-baldintzetan, desgaitasun funtzional fisikoa, bisuala, entzumenekoa, intelektuala eta organikoa dituzten pertsona guztiei.

3.– Oro har, honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko laguntza-lerro honetan:

- Enpresan fabrikazio edo ekoizpen propioa egiteko aktiboak erostea, merkaturatzeko eta azken kontsumitzaileei edo beste enpresa batzuei saltzeko, bai eta ekoizpen hori kudeatzeko eta merkaturatzeko aplikazio informatikoak eta programak ere.
- Lursailak, eraikinak eta lokalak erostea, eta eskualdatze-eskubideak.
- Enpresako ibilgailuak erostea.

- Langileen gastuak.
- Lokalak eta diruz lagun daitekeen beste edozein aktibo finko alokatzea.
- Negozioaren funtzionamendu-gastu orokorrak (argia, ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, ohiko aholkularitza-gastuak, kontsumigarriak, etab.).
- Informatika-ekipamendua, salbu eta beharrezkoa bada laguntzaren xede den ekimena gauzatzeko, eta proiektua balioesteko azalpen-memorian argi eta gabi justifikatzen bada.
- Ekipo informatikoa berritzea, aurrekoa zaharkituta gelditu delako, salbu eta berrikuntza hori beharrezkoa bada laguntzaren xede den ekimena gauzatzeko, eta proiektua balioesteko azalpen-memorian argi eta gabi justifikatzen bada.
- Berrikusketa- edo mantentze-gastuak, bai eta aktibo finkoak birjartze hutsekoak ere, energia-efizientzia handiko aktiboekin ordeztzen direnean izan ezik (B, C etiketa energetikoa edo baliokideak: A+++, A++ eta A+).
- Finantzaketako edota aholkularitza juridiko eta finantzarioko gastuak, zeharkako zergak edota errentaren gaineko pertsonalak, notario- eta erregistro-tasak, administrazio-baimenen tasak, lizentziak edo antzekoak, I. eta II. eranskinetan zehaztutakoak izan ezik.
- 100 euro garbi edo gutxiagoko aurrekontuak, proformako fakturak edo behin betiko fakturak.
- Eskatzaileak fabrikatutako, egindako edo garatutako aktiboak, bai eta diruz lagun daitekeen edozein kontzeptu edo jarduera ere, baldin eta hornitzailea dirulaguntzaren eskatzaileari lotutako pertsona edo erakunde bat bada, Dirulaguntzen Araubidea Arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

IV. ERANSKINA

AURKEZTUTAKO PROIEKTUEN BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA HAZTAPEN-FAKTOREAK

1.– Bi lerroetarako balio duten balorazio-irizpideak. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

1. irizpidea: Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta kontsumitzailearen aurrekoa		10
1.1. Akreditatzea % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten emakumeen kontratazioa (lan-kontratuaren kodea: 130.139.230.239.330.339, 430 eta 530).	4	
1.2. Akreditatzea % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten gizonen kontratazioa (lan-kontratuaren kodea: 130.139.230.239.330.339, 430 eta 530).	3	
1.3. EAEko Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikita egotea.	3	

2. irizpidea: Aurreko laguntzak		10
Honen aurreko azken lau ekitaldietan (2021-2024), Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloko eskumena duen sailak arautu eta deitutako turismo-arloko ekintzailatza eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzak jaso ez izana.	10	

2.– Ekintzailatza-lerrorako balorazio-irizpide espezifikoak (I. eranskina). Gehieneko puntuazioa: 40 puntu.

3. irizpidea: Enpresa-proiektua	40
---------------------------------	----

3.1. Proiektuaren bideragarritasuna	3 puntu	
Negozio-plana edukitzea, enpresak sortzeko eta garatzeko lankidetzan jarduten duten agentziek edo enpresa-aholkularitzek garatu edo tutorizaturik (agentziak = enpresa-haztegiak, enpleguak abiarazteko eta sorraraztekoak, enpresa-zentroak eta abar).	3	

Autoenplegua sortzea turismo-negozio berriarekin*	12 puntu gehienez
3.2. Emakumeen autoenplegua: 2,5 puntu pertsonako, gehienez ere 3 pertsona.	2,5 eta 7,5 artean
3.3. Gizonen autoenplegua: 1,5 puntu pertsonako, gehienez ere 3 pertsona.	1,5 eta 4,5 artean

*Ez dira baloratuko 2025a baino lehen Gizarte Segurantzaren alta emandakoak, ezta diruz lagundutako jarduerarekin bat ez datorren jarduerak ekonomikokoak ere.

3.4. Negozio berrirako soldatapeko enplegua sortzea	15era arte
---	------------

Soldatapeko enplegua (autoenplegua izan ezik), laguntza eskatzeko kontratatutako langile emakumezkoentzat*	Lan-kontratuaren kodea (ITA)	Puntuak
Kontratu mugagabeak: 3 puntu pertsonako, gehienez ere 3 pertsona.	100 eta 389 artean	3 eta 9 bitartean
Iraupen mugatuko kontratuak: 1,5 puntu pertsonako, gehienez ere 3 pertsona.	402 eta 550 bitartean	1,5 eta 4,5 artean

Soldatapeko enplegua (autoenplegua izan ezik), laguntza eskatzean kontratatutako langile gizonekoentzat*	Lan-kontratuaren kodea (ITA)	Puntuak
Kontratu mugagabeak: 2 puntu pertsonako, gehienez ere 3 pertsona.	100 eta 389 artean	2 eta 6 artean
Iraupen mugatuko kontratuak: 1 puntu pertsonako, gehienez ere 3 pertsona.	402 eta 550 bitartean	1 eta 3 artean

*Ez dira baloratuko 2025a baino lehen Gizarte Segurantzaren alta emandakoak, ezta dirulaguntza-eskabidearen ondoren emandakoak ere.

Turismo-negozioaren lehiakortasuna eta digitalizazioa indartzea	10	
3.5. Negozioa digitalizatzera bideratutako soluzio teknologikoak ezartzeko laguntza eskatzea.	5	
3.6. Turismo-negozioa online merkaturatzea (moldagarria/responsive webgune bat garatzeko eta/edo zuzenean online merkaturatzeko laguntza eskatzea)	5	

3.– Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko lerrorako balorazio-irizpide espezifikoak (II. eranskina). Gehieneko puntuazioa: 40 puntu

4. irizpidea: Erakundearen edo enpresaren tamaina	15	
Langile-taldea: 50 langile baino	0	
Langile-taldea: 25 eta 50,00 langile bitartean	4	
Langile-taldea: 12 eta 24,99 langile bitartean	8	
Langile-taldea: 6 eta 11,99 langile bitartean	11	
Langile-taldea: 0,01 eta 5,99 langile bitartean	15	

5. irizpidea: Zer jarduketarako eskatzen den laguntza.	20	
5.1. Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez (II. eranskineko 2.1 apartatua).	6	
5.2. Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea (II. eranskineko 2.2 apartatua).	4	
5.3. Turismo-jarduerak ingurunean duen inpaktua murriztea (II. eranskineko 2.3.1 apartatua)	6	
5.4. Turismo-eskaintzarako irisgarritasun unibertsala errazteko teknologiak sartzeari (II. eranskineko 2.3.2 apartatua)	4	

6. irizpidea: Laguntza elektronikoaren xede den negozioa online merkaturatzeko estrategia.	5	
6.1. Laguntza eskatzen den egunean, moldagarria/responsive web-orri bat izatea, laguntzaren xede den negozioa merkaturatzeko (euskaraz edo gaztelaniaz: 1 puntu; euskaraz eta gaztelaniaz: 2 puntu; euskaraz, gaztelaniaz eta beste hizkuntza batean: 4).	1 eta 4 artean	
6.2. Negozioaren presentzia sare sozial eguneratua eta aktibo batean (Instagram, Tik Tok, Facebook, X)	1	

V. ERANSKINA

PROIEKTUA BALORATZEKO AZALPEN-MEMORIAREN EDUKIA

1.– Ekintzailletza-Lerroan Aurkeztutako Eskabideak (I. eranskina):

1.1.– Zer negozio sortzeko eskatzen den laguntza, negozio hori azaltzeko memoria.

Ahal den neurrian, laguntza zer proiektutarako eskatu den, proiektu hori hobeto ulertzeko behar den informazio grafikoa (krokisa, planoak, argazkiak, etab.) erantsiko zaio eskabideari; batez ere, laguntzaren xedea denean instalazioak egokitzea edo ekipamenduak edo garraio-elementuak erostea.

1.2.– Enplegua sortzea:

1.2.1. – Autoenplegua:

Eskatzen den laguntzaren bidez sortu nahi den negozioan zuzenean lan egingo duten proiektu-sustatzaile bakoitza identifikatzea, zer datatan dauden Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda, eta zer jarduera ekonomikotan inskribatu diren.

1.2.2.– Langileak kontratatzea:

2025ean kontratatutako pertsonak identifikatzea eta kontratu tipologia, «Kotizazio-kontuko kode batean alta egoeran dauden langileen txostenean» (ITA) agertzen direnekin bat etorri beharko dutenak.

1.3.– Baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra, ingurumena zaintzea eta klima-aldaketari aurre egitea.

Proiektuan gai horri buruz hartutako edo aurreikusitako neurriak identifikatzea (hala nola energia-efizientzia eta uraren erabilera hobetzeko neurriak, energia berriztagarrien erabilera, erabilera bakarreko plastikoa eta ontziak murriztea edo desagerraraztea, hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea eta abar).

1.4.– Energia-etiketa duten aparatuak erosteko laguntza eskatuz gero, horietako bakoitzean, marka, modeloa eta energia-etiketa identifikatu behar dira. Aparatu horiek industrialak badira, halakotzat identifikatu beharko dira.

2.– Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko lerrora aurkeztutako eskabideak (II. eranskina):

2.1.– Proiektua:

2.1.– Laguntza zer jardueretarako eskatu den, jarduera horien memoria eta justifikazioa.

2.2.– II. eranskineko 2.2.1 apartatuan diruz lagun daitezkeen jarduketetarako memorian, zehatz-mehatz azaldu beharko da turismo-zerbitzua edo -produktua zertan datzan, bai eta zer berritasun edo desberdintasun dagoen enpresak aurretik eskainitakoaren aldean.

2.3.– Energia-etiketa duten aparatuak erosteko laguntza eskatuz gero, horietako bakoitzean, marka, modeloa eta energia-etiketa identifikatu behar dira. Aparatu horiek industrialak badira, halakotzat identifikatu beharko dira.

2.4.– Hala dagokionean, laguntzaren xedeko soluzio teknologikoa erabili ahal izateko ekipamendu informatikoa erosi beharraren justifikazioa (II. eranskineko 2.1 apartatua).

2.5.– Ahal den neurrian, laguntza eskatu den proiektua hobeto ulertzeko behar den informazio grafikoa (krokisa, planoak, argazkiak, etab.) erantsiko zaio memoriari; batez ere, laguntzaren xedea denean instalazioak egokitzea edo ekipamenduak edo garraio-elementuak erostea.

VI. ERANSKINA

EKINTZAILETZARAKO ETA TURISMO-ENPRESEN LEHIAKORTASUNAREN HOBEEKUNTZARAKO
LAGUNTZAK (2025) (ERREF.:1010213)

ESKABIDEA

☐ Eskatzailea:☐ Ordezkaria:

Instrukzio-organo honi zuzendua: TURISMO ETA OSTALARITZA ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Identitate-datuak

Eskatzailea

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Pertsona juridikoa bada:

Entitatearen izena:

Pertsona fisikoa bada:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa

Ordezkaria

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa

Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira

Espedientea izapidetzen ari den bitartean, administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:

Komunikaziorako hizkuntza:

☐ Euskara ☐ Gaztelania

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: Nire karpetako jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, beharrezkoa da identifikazio-bitarteko elektronikoa bat.

10 egun naturalean jakinarazpen elektroniko batera sartzen ez bazara, jakinarazitzat joko da Nire karpeta eskuragarri jarri eta 10 egun natural igaro ondoren. Adierazitako epea bete ondoren, jakinarazpena atzera bota duzula ulertuko da, eta hala jasoko da espedientean. Izapidea gauzatutzat joko da, eta administrazioak aurrera egingo du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak:

Helbide elektronikoa:

Telefono mugikorra:

Datuak erabiltzeko baimena

☐ Komunikazio eta abisuetarako nire datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan erabiltzea nahi dut.

☐ Komunikazio eta abisuetarako nire datuak eskusiboki espediente hau kudeatzeko erabiltzea nahi dut.

Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak «Turismo-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

- Arduraduna: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila. Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza.
- Xedea: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak turismo-arloan deitutako laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.
- Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko.
- Hartzaileak: Ogasun publikoa eta Zerga Administrazioa; legezko interesdunak, Europar Batasuneko organoak, organo judizialak, autonomia-erkidegoko bestelako organoak, Basquetour, Foru Aldundiak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Kontu Publikoen Auzitegia eta herritarrak (iragarki-taula elektronikoan argitaratzea onartzeko/ukatzeko ebazpena)
- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: https://www.euskadi.eus/web01-sede/eu/contenidos/informacion/egoitza_datuen_babesa/eu_egoitza/index.shtml

Araudia:

Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>). 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>).

Datu osagarriak

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden

Lurralde historikoa / Autonomia-erkidegoa / Probintzia

Araba/Bizkaia/Gipuzkoa/Nafarroa/Besterik

Legezko ordezkaria

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa

Nahi bestetan errepikatu.

Erakunde eskatzailearen egoitza soziala:

Posta-kodea:

Probintzia:

Udalerrria Herria:

Helbidea: Zk.

Eskailera

Solairua

Letra

Ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila

Ondasun-erkidegoa ala sozietate zibila da? ☐BAI ☐EZ

Ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren partaideak:

Identifikazio-agiria	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua	Partaidetza-ehunekoa

Nahi bestetan errepikatu.

Harremanetarako pertsona:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa

Telefonoa: Helbide elektronikoa:

Nahi bestetan errepikatu.

Tipologia

Enpresa-mota:

Establezimendu-mota:

Inbertsioaren kokapena

Establezimenduaren izena:

Erregistro-zenbakia:

Inbertsioaren kokapena eta titularraren helbidea desberdinak al dira? ☐BAI ☐EZ

Posta-kodea:

Probintzia:

Udalerria Herria:

Helbidea: Zk. Eskailera

Solairua

Letra

Plantilla

Eskaera egin den egunean dagoen plantilla osoa honako hau da (Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik kanpoko langileak barne):

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gerentzia		
Gainerako langileak:		
Guztiak:		

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

- ☐ Ekintzailletza: Ekintzailetzari laguntzea, turismoaren esparruko negozio berriak sortzeko
- ☐ Lehiakortasuna: Turismo-enpresak modernizatzeko eta haien lehiakortasuna hobetzeko laguntzak

Ekintzailtza

Ekintzailtzari laguntzea, turismoaren esparruko negozio berriak sortzeko

Negozio berria Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan inskribatuta dago edo ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda, laguntza eskatzen den egunean: ☐ BAI ☐ EZ

(Enpresak alta emanda egon behar dira 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2026eko urtarrilaren 12 baino lehen)

Proiektuaren izena: _____

Memoria

Gastuak, banakatuta:

Gastuaren deskribapena	Hornitzailea	Aurrekontuaren/fakturaren/kontratuaren identifikazio-zenbakia	Zenbatekoa (eurotan), BEZik gabe

Nahi bestetan errepikatu.

Guztira:

Bestelako laguntzak:

Gastua finantzatzeko emandako laguntzak*: _____

*proiektuaren gastuak finantzatzeko emandako laguntzen baturak bat etorri beharko du Erantzukizunpeko Adierazpenean, «guztira emandako laguntzak» atalean, jasotako zenbatekoarekin.

Lehiakortasuna

Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan edo ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emandako data: _____

(Enpresak alta-egoeran egon behar dira 2025ko urtarrilaren 1a baino lehen)

Memoria

Diruz lagun daitezkeen jarduketak:

☐ 2.1. Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez (gutxieneko inbertsioa: 5.000 euro).

☐ 2.2. Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea (gutxieneko inbertsioa: 5.000 euro).

☐ 2.3. Eskaintza turismo segurura, jasangarrira, arduratsura eta irisgarri bideratzea (gutxieneko inbertsioa: 5.000 euro).

Diruz lagundu daitezkeen gastuak, guztira:

2.1 Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez

- ☐ 2.1.1. Negozio-kudeaketaren digitalizazioan aurrera egiteko soluzio teknologikoak ezartzea.
- ☐ 2.1.2. Berrikuntza sustatzea negozio-prozesuetan eta I+G+B jarduerak garatzean.
- ☐ 2.1.3. Establezimenduaren kudeaketa adimenduneko sistemak (domotika) eta beste teknologia batzuk txertatzea, birusak eta bakterioak hedatzea saihesteko eta establezimenduaren segurtasuna areagotzeko.
- ☐ 2.1.4. Haririk gabeko konektibitatea turismo-ostatueta.

Gastuak, banakatuta:

Gastuaren deskribapena	Hornitzailea	Aurrekontuaren/fakturaren/kontratuaren identifikazio-zenbakia	Zenbatekoa (eurotan), BEZik gabe

Nahi bestetan errepikatu.

Guztira: _____

Bestelako laguntzak:

Gastua finantzatzeko emandako laguntzak*: _____

*proiektuaren gastuak finantzatzeko emandako laguntzen baturak bat etorri beharko du Erantzukizunpeko Adierazpenean, «guztira emandako laguntzak» atalean, jasotako zenbatekoarekin.

2.2. Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea.

- ☐ 2.2.1. Zerbitzu eta/edo produktu turistiko berriak sortzea.
- ☐ 2.2.2. Instalazioak eta ekipamendua hobetzea jatetxeetan edo turismo-ostatueta.

Gastuak, banakatuta:

Gastuaren deskribapena	Hornitzailea	Aurrekontuaren/fakturaren/kontratuaren identifikazio-zenbakia	Zenbatekoa (eurotan), BEZik gabe

Nahi bestetan errepikatu.

Guztira: _____

Bestelako laguntzak:

Gastua finantzatzeko emandako laguntzak*: _____

*proiektuaren gastuak finantzatzeko emandako laguntzen baturak bat etorri beharko du Erantzukizunpeko Adierazpenean, «guztira emandako laguntzak» atalean, jasotako zenbatekoarekin.

2.3. Eskaintza turismo segurura, jasangarrira, arduratsura eta irisgarriera egokitzea

- ☐ 2.3.1. Turismo-jarduerak ingurunean duen inpaktua txikitzea.
- ☐ 2.3.2. Irisgarritasuna errazteko berariaz garatutako teknologiak txertatzea.

Gastuak, banakatuta:

Gastuaren deskribapena	Hornitzailea	Aurrekontuaren/fakturaren/kontratuaren identifikazio-zenbakia	Zenbatekoa (eurotan), BEZik gabe

Nahi bestetan errepikatu.

Guztira: _____

Bestelako laguntzak:

Gastua finantzatzeko emandako laguntzak*: _____

*proiektuaren gastuak finantzatzeko emandako laguntzen baturak bat etorri beharko du Erantzukizunpeko Adierazpenean, «guztira emandako laguntzak» atalean, jasotako zenbatekoarekin.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Bi lerroetarako irizpideak:

Adierazi hurrengo ebaluazio-irizpide hauek bete direla (dokumentazio bidez egiaztatu beharko da):

1. irizpidea: Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta kontsumitzailearen aurrekoa

1.1. Akreditatzen da % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten emakumeen kontratazioa: ☐ BAI ☐ EZ

(Eskaerarekin batera, Alta-egoeran dauden Langileen Txostena aurkeztu beharko da, hori egiaztatzen duena)

1.2. Akreditatzen da % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten gizonen kontratazioa: BAI ☐ EZ

(Eskaerarekin batera, Alta-egoeran dauden Langileen Txostena aurkeztu beharko da, hori egiaztatzen duena)

EAEko Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikita dago: ☐ BAI ☐ EZ

2. irizpidea: Aurreko laguntzak

Deialdi honen aurreko azken lau ekitaldietan (2021 - 2024) turismo-enpresen ekintzailtzarako eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak jaso ditu, turismoaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak arautuak eta deituak: ☐ BAI ☐ EZ

Hala badagokio, adierazi urteak: _____

Irizpide espezifikoak (ekintzailtza)

Adierazi agiri bidez egiaztatu beharko dituzun balorazio-irizpide hauek betetzen diren:

3. irizpidea: Proiektuaren bideragarritasuna

3.1 Negozio-plana enpresak sortzeko eta garatzeko lankidetzan jarduten duten enpresek (enpresa-haztegiak, enpleguak abiarazteko eta sorraraztekoak, enpresa-zentroak eta abar), edo enpresa-aholkularitzek, garatu edo tutorizatu dituztela egiaztatzea. ☐ BAI ☐ EZ

Hala badagokio, adierazi negozio-plana garatu edo tutorizatu duen erakundearen izena:

(Eskaerarekin batera ziurtagiria edo hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du)

2025ean eta laguntza eskatu aurretik sortutako autoenplegua:

3.2 Emakumeen autoenplegua (kopurua): _____

3.3 Gizonezkoen autoenplegua (kopurua): _____

2025ean sortutako eta eskaera egin aurretik formalizatutako soldatapeko enplegua (autoenplegua alde batera utzita)

3.4 Emakumeen kontratazioa:

Kontratu mugagabeen kopurua: _____

Iraupen mugatuko kontratu-kopurua: _____

3.5 Gizonezkoen kontratazioa:

Kontratu mugagabeen kopurua: _____

Iraupen mugatuko kontratu-kopurua: _____

(Eskaerarekin batera, Alta-egoeran dauden Langileen Txostena aurkeztu beharko da, hori egiaztatzen duena)

Negozioaren lehiakortasuna eta digitalizazioa indartzea

Laguntzak eskatzeko deialdi honetan, honako hauetarako inbertsioak aurkeztu ditu:

3.6 Negozioa digitalizatzeko soluzio teknologikoak ezartzea (l. eranskineko 7.f) apartatua): ☐ BAI ☐ EZ

3.7 Turismo-negozioa online merkaturatzea (l. eranskineko 7.g) apartatua): ☐ BAI ☐ EZ

Irizpide espezifikoak (Lehiakortasuna)

4. irizpidea: Erakundearen edo enpresaren tamaina.

«Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantilla-txostenaren» datua, 2024eko urtarrilaren 1etik 2024eko abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokiona: _____

(«Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantilla-txostena» aurkeztu beharko da)

Laguntzaren xede den negozioan lan egiten duten eta Langile Autonomoen Araubide Berezian alta-egoeran dauden autonomoen kopurua, eskaera egin den egunean eguneratuta: _____

Bi datuen batura: _____

5. irizpidea: Lehiakortasunaren atalean betetako datuen arabera hautatutako jarduerak

5.1. Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez: ☐ BAI ☐ EZ

5.2. Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea: ☐ BAI ☐ EZ

5.3. Turismo-jarduerak ingurunean inpaktu txikiagoa izatea: ☐ BAI ☐ EZ

5.4. Irisgarritasuna hobetzera bideratutako teknologiak txertatzea: ☐ BAI ☐ EZ

6. irizpidea: Laguntza elektronikoaren xede den negozioa online merkaturatzeko estrategia.

Adierazi balorazio-irizpide hauek betetzen diren:

6.1. Laguntza eskatzen den egunean, moldagarria/responsive webgune bat dauka laguntzaren xede den negozioa merkaturatzeko: ☐ BAI ☐ EZ

Hala badagokio, adierazi hizkuntzak:

- euskara edo gaztelania: ☐
- euskara eta gaztelania: ☐
- euskaraz, gaztelaniaz eta beste hizkuntza batean: ☐

Web helbidea edo URLa: ____

6.2. Negozioak badu presentzia sare sozial eguneratua eta aktibo batean (Instagram, Tik Tok, Facebook, X)

☐ BAI ☐ EZ

Hala badagokio, adierazi estekak: _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Laguntzaren pertsona edo entitate onuraduna izateari dagokionez:

☐ Pertsona edo erakundea ez dagoela Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aipatutako egoeretan, zeinek eragotzi egiten baitute pertsona edo erakunde onuradun izatea.

☐ Konpromisoa hartzen duela enpresa lekuz ez aldatzeko, Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua araber.

Zehapenei dagokienez:

☐ Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin ebazpen irmo baten bidez zigortua izan ez dela.

☐ Pertsona fisiko edo juridikoa, publikoa edo pribatua, ez dagoela administrazio-bidean ebazpen irmo baten bidez zehatuta Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astunagatik, dagozkion neurri zuzentzaileak bete eta zehapena bete arte.

☐ Ez dauka inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan.

☐ Honako itzulketa- edo zehapen-prozedura hauetan sartuta dago eta Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzari horien ebazpenen berri emango dio.

Prozedurak:

Hasiera-data	Sail izapidegilea	Espediente-zenbakia

Nahi bestetan errepikatu.

Bestelako laguntzei dagokienez:

- ☐ Ez du eskabiderik aurkeztu eta/edo laguntzarik lortu inbertsio-proiektu honetarako erakunde publiko zein pribatuetatik gaur arte.
- ☐ Laguntza-eskabide honez gain, proiektu honetarako eskabidea aurkeztu du eta/edo laguntza eskuratu du, gainfinantzaketarik gabe, erakunde publiko edo pribatu hauetan, gaurko egunera arte.

Bestelako laguntzak:

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Jarduketa	Eskatutako laguntzaren zenbatekoa	Emandako laguntzaren zenbatekoa

Nahi bestetan errepikatu.

Emandako laguntzak, guztira: _____

«Emandako laguntzaren zenbatekoa» zutabeko zenbatekoen batura.

Emandako laguntzak*: _____

*Jarduketa bakoitzeko gastuak finantzatzeko ezarritako zenbatekoen batuketa.

«Emandako laguntzak, guztira» ataleko zenbatekoak bat etorri behar du «Emandako laguntzak» atalekoarekin.

☐ Azken 3 urteetan ez du jaso Europar Batasuneko zuzentzauek ezarritako *de minimis* arauari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntzarik.

☐ Azken 3 urteetan, aurtengoa barne hartuta, Europar Batasuneko zuzentzauek ezarritako *de minimis* arauari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntza hauek jaso ditu.

Bestelako laguntzak:

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Emandako laguntzaren zenbatekoa

Nahi bestetan errepikatu.

(1) *De minimis* arauaren arabera, *de minimis* kontzeptupean enpresa batek gehienez 300.000 euro jaso ditzake laguntza ezberdinetatik 3 urtean.

☐ Ez dago ezein berreskuratze-aginduren mende, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legeaz kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo izanaren ondorioz.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

- ☐ Ez du jaso zigorrik, dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izatea debekatzen dionik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatu zuen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 21. bis. 2 artikulua arabera.
- ☐ 50 langiletik gorako enpresei dagokionez, indarrean dauka berdintasun-plan bat, eta ezarri ditu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

Eskabideko datuei dagokionez, honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

- ☐ Betetzen ditu indarrean den araudian laguntzaren onuradun izateko zehaztutako baldintzak, horren ziurtagiriak ditu –Administrazioaren esku jarri beharko ditu hark eskatutakoan– eta hitzematen du eskubidea aitortzen zaion aldian zehar aurreko baldintzak betetzen jarraitzea.
- ☐ Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan dokumentu guztiak ere; hala, dagokidan erantzukizuna neure gain hartzen dut (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua.)

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Ofiziozko egiaztapena

Aplikagarri den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organismoak honako datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz eskumena duen administrazioan:

- Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)
- Egunean izatea zerga-betebeharrak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)
- Nortasun-datuen egiaztapena (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia), pertsona fisikoen kasuan.
- Alta EJZn (ekintzailatza-ildoak).
- Altak eta bajak EJZn, Laguntzei buruzko Aginduaren 4.2 artikuluan ezarritako kasuetan (lehiakortasun-lerroa).
- Lan-bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia- GSDN)

Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, osatzen duen pertsona bakoitzari egingo zaio egiaztapena.

Aurka egonez gero, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira dokumentuak.

Adierazi arrazoiak: _____

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Bi laguntza-lerroetan komuna den oinarrizko dokumentazioa (I. eranskina eta II. eranskina):

- Azalpen-memoria (IV. eranskinaren arabera).
- Enpresaren eratze-eskriturak (pertsona juridikoak).
- Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak: eratze-kontratua.
- Aurrekontuak edo proformako fakturak edo diruz lagun daitezkeen gastuen fakturak.
- Hala badagokio, 2025ean formalizatutako leasing-kontratua.

1. irizpidea baloratzeko bi laguntza-lerroen dokumentazio osagarri komuna:

- «Kotizazio-kontuko kode batean alta egoeran dauden langileen txostena (ITA)», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, eskabidea egin den egunean eguneratua. (% 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa)

Turismo-negozio berriak sortzeko ekintzailatza-laguntzen lerroa (I. eranskina)

Agiri komunez gain, oinarrizko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Negozio-plana.
- Lokalaren errentamendu-kontratua, halakorik balego.
- Hala badagokio, establezimenduaren irisgarritasuna egiaztatzen duen txostena, teknikari eskudunek sinatua (ez da nahitaezkoa izango obrarik behar ez duen ekipamendua erosi edo instalatzen bada).

Dokumentazio osagarria 3. irizpidea balioesteko:

- Egiaztatzea negozio-plana garatu edo tutorizatu dutela enpresak sortzeko eta garatzeko lankidetzan jarduten duten agentziek (enpresa-zentroak eta abar) edo enpresa-aholkularitzek.
- «Kotizazio-kontuko kode batean alta egoeran dauden langileen txostena (ITA)», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, eskabidea egin den egunean eguneratua.

Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzen lerroa (II. eranskina)

Dokumentazio osagarria 4. irizpidea balioesteko:

- «Langileen batez besteko plantillen txostena», laguntza honen deialdiaren aurreko urtekoa (GSDN).

Borondatezko ordezkartza ematea:

Ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, haren izenean jardun dezan elektronikoki, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako hauek erabiliko dira:

- Ordezkarien Erregistro Elektronikoa, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan kokatua (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>), edo

• «borondatezko legezko ordezkartza egilesteko inprimaki normalizatua» (https://www.euskadi.eus/contenidos/formulario/representacion_legal/eu_form/adjuntos/egilespen_ordezkaritza_inprimakia_gordegarria.pdf), behar bezala formalizatua, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dena. Pertsona juridikoek, gainera, ordezkartza-ahalordearen kopia erantsi beharko dute, edo legezko beste edozein dokumentu, ahalorde-emailea entitate ordezkartza-emailaren legezko ordezkari gisa legitimatzen duena.

HIRUGARRENEN DATUAK

Dirulaguntza ordaintzeko, beharrezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean horretarako behar diren hirugarrenen datuak erregistratzea/eguneratzea.

- ☐ Hirugarren gisa alta emanda dago, eta ez ditu datuak aldatu nahi.
- ☐ Hirugarrenen erregistroan alta ematea edo aldatzea.

Hirugarrenen erregistroko datuen alta edo aldaketa interesdunak berak egin beharko du bitarteko elektronikoen bidez, edo haren ordezkari batek haren izenean, baldin eta ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen ahalordeen erregistro elektronikoa alta emanda badago (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>).

Hirugarrenen erregistro telematikoaren bitartez:

https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml

INFORMAZIO GEHIGARRIA

Datu pertsonalak egiaztatzea.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak, bere eskumenak baliatuz, behar diren egiaztapenak egingo dituela, eskabide honetan aitortutako eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalen zehaztasuna egiaztatzeko.

VII. ERANSKINA

LANBIDE-JARDUEREN LEHEN EKITALDIETAKO ATXIKIPENETAN TASA MURRIZTUA
APLIKATZEKO ESKABIDEA

..... andreak/jaunak,

.....NAN zenbakia eta helbidea.....(e)n (.....
kalea.....,PK) dituenak,

honako eskabide honen bidez,

ADIERAZTEN DU:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera, honako hau aurreikusten da:

«Edonola ere(...), zergadunek jarduera profesionala hastea egin badute, atxikipen-tasa % 7 izango da jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan, baina betiere jarduera hasi aurreko urtean inolako jarduera profesionalik egin ez badute.

Aurreko lerrokadan aipatu den atxikipen-tasa aplikatzeko, zergadunek zirkunstantzia hori betetzen dela jakinarazi beharko diote etekinen ordaintzaileari, eta hark komunikazioa gorde beharko du behar bezala sinatuta».

Horrenbestez, ekonomia-jardueren gaineko zergan (EJZ) alta eman nuenez joan den 202...(e)ko.....aren(e)(a)n, eta nire lanbide-jarduerari ekin nionez, idazki honen bidez jakinarazten dut % 7,00ko atxikipen-ehunekoa aplikatu zitzaiela 202.... urteko nire etekin profesionalei.

Sin.: